

KLIMA, BABES ESKE: Gaur oztopoz
betetako bidea hartzen duenak,
bihar arrakasta gidatuko du > 4


ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Voxeko buruaren Smith and Wesson
errebolberra MIKEL ZUBIMENDI BERAŠTEGI > 11

2018ko abenduaren 8a | XII. urtea • 598. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



JESUS NABERAN

HOSTO UGARI JAUSI DIRA LARRABETZUKO ABADE HURA EZAGUN EGIN ZENETIK,
BAINA LEHENA, ORAINA ETA GEROA ZIRKULUAN NAHASTUTA DAUDENEZ, ARRETAZ
IRAKURTZEKO MODUKOA DA IRAULTZA TXIKIEN ZALE HONEK, «SUGEAREN
IRAULTZAREN» ZAIN, ORDUKOEZ ETA GAURKOEZ DIOENA. > 22 Marisol RAMIREZ | FOKU

**Klimak egungo estrategiak
aldatzea eta anbizio handiagoko
planak eskatzen ditu** 04

«Ku Klux Klanean infiltratuta» 08

**Euskharan elkartea, 20 urte haur
eta helduak euskaraz hezten** 12

Sarean 18

E.lkarrizketa: Jesus Naberan 22

**Lazkaoko Enparandegi, baserriko
jakintza jasotzeko ahalegina** 25

In fraganti: Lola Altolagirre 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

03 **Gorka Elejabarrieta:**

Nazioarteko aitortza

10 **Ander Gortazar Balerdi:** Kiruna

11 **Mikel Zubimendi Berastegi:**

Voxeko buruaren Smith and
Wesson errebolberra

16 **Maidier Iantzi:** Bidean

16 **Xabier Mikel Errekondo:**

Urduri dago Markel Olano (II)

17 **Alai Zubimendi**

20 **Gorka Zozia:** Adaren IA

21 **Iker Barandiaran:** Hemengoa da
guk gure egiten duguna

30 **Garazi Goia:** Diagnostikoak



{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

Nazioarteko aitortza

Gure testuinguruan, independentzia lortu eta estatu bihurtzeko, edozein naziok nahitaez bi baldintza bete behar ditu: independentziaren aldeko %50 baino baino gehiagoko babesa eta nazioarteko beste estatuen aitortza. Eta beharrezko baldintzok lortuta ere, emaitza ez dago guztiz ziurtatuta.

Ez dut uste gehiengoaren babesa eskuratzeko formula magikorik dagoenik, ezta prozesu batetik bestera berdintsu kopia daitekeen biderik ere. Horrela balitz, aspaldi lortuta litzateke. Gurean bidea ibiltzen jarraitu besterik ezin dugu egin, bidegurutze bakoitzean erabakirik hoberena hartzeko borondatearekin, beti asmatzea oso zaila edo ezinezkoa dela jakitun. Tote-mak, hitz eta erabaki borobilak, determinismo absolutua ez dira bidelagun onak. Urte luzez, belau-naldiz belaualdi, autodeterminazioa (hasieran) eta erabakitze eskubidearen (ondoren) aitortza zen independentziarako bide bakarra. Negoziazioa eta aitortza = Erreferendum adostua. Orain, aldiz, aldebakarrekoa izanen dela edo ez digula balio dirudi batzuetan. Konbentzituena arteko eztabaida existentzialistak; eta, bi-tartean, beharrezkoak ditugun bi osagaiok lortu gabe.

Ni sinetsita nago ez digutela sekula gure nazio izaera onartuko, ezta gure eskubideak ere. Eta, bukaeran, azken pausoa, azken erabakia, aldebakarrekoa izan beharko dela, horrek dakarren ondorio guztiekin. Baina ez dezagun ezer baztertu, ezer ezinezkotzat eman, aukera, ate eta zubi guztiak irekita manten ditzagun eta jo dezagun aurrera. Gehiago izan behar gara, gehiengoa. Flandria, Eskozia eta Irlandako kasuak begiratuta argi dago abertzaletasunaren baitan alderdi nagusi bakarra egotea, barne lehia elektoralik ez egotea alegia, oso lagungarria zaiela independentziarako bide bakar eta adostua diseinatzerako orduan. Kataluniako prozesuak, berriz, besteak beste, antagonikoak diren bi gauza garrantzitsu erakutsi dizkigu. Batetik, barne lehia elektoral hori egonda, posible dela horrelako prozesu bat aurrera eramatea. Katalanek urriaren 1eko erreferenduma horrelako baldintzetan antolatu zuten. Eta, bestetik, horrekin batera, kontrakoa ere frogatu digu-

te katalanek, hau da, barne lehia hori berebiziko arazo bilaka daitekeela krisi momentuetan eta baita estrategia bateratu bat diseinatzerako orduan ere. Gurean barne lehia hori badago eta egongo da, eta horrek gure bigarren eztabaida existentziala dakarkigu; EAJrekin edo EAJ gabe. Askotan elkarrekin betiko haserretzeraino daramagun eztabaida. Ez dago erantzun argirik, beraz, jarrai dezagun aurrera, saia gaitzen biak lortzen: EAJ independentziara ekartzen, eta, aldi berean, independentzia EAJrengana hurbiltzen.

Estatuak horrelako prozesu eta gertakarien aurrean izatez kontserbadoreak dira, aldaketen kontrakoak, estatu matrizearekin mila akordio eta konpromisoren bidez lotuta daude; ondorioz, beti agertuko dira, agertzekotan, independentziaren eta estatu berriaren sorreraren kontra. Azken urteetan Europar hori argi ikusi da, hor dago Europar Batasunaren jarrera Flandria, Eskozia edo Kataluniako prozesuen aurrean. Ñabardura eta berezitasun askorekin, prozesu bakoitza bakarra delako, baina oro har esan dezakegu Europar Batasunaren jarrera antzekoa izan dela hiru kasuon aurrean.

Sinetsita nago ez digutela sekula nazio izaera onartuko, ezta gure eskubideak ere. Eta, azken pausoa, aldebakarrekoa izan beharko dela

Hiru herriotako bakar batek ere ez du, bakoitzak arrazoi oso ezberdinengatik, independentzia gauzatu, eta, ondorioz, zaila da asmatzea Europa eta mundua osatzen duten estatuen jarrera zein izango zitekeen independentzia gauzatuz gero. Baina estatuen jarrera estatu berriarekiko oso ezberdina izan daiteke honek independentzia gauzatu aurretik edo ondoren. Hori ulertzea garrantzitsua da, Flandria, Eskozia eta Kataluniako kasuetan ikusi dugun nazioarteko jarrera independentzia gauzatu ez duten estaturik gabeko herrien kasuetan eman delako bakarrik. Pentsa genezake, Eskoziako kasuan bereziki edo bakarrik –estatu matrizearekin adostu zuelako erreferenduma– independentzia gauzatuz gero nazioarteko aitortza eskuratzeko zailtasun gehiegirik ez zukeela izango. •

KLIMA, BABES ESKE

Gaur oztopoz betetako bidea hartzen duenak, bihar arrakasta gidatuko du

Erakunde ekologista batzuek txalotu egin dute klima aldaketari aurre egiteko Europako Batzordearen epe luzerako estrategia. «Aurrera egindako urrats garrantzitsua da», esan zuen Klimari Buruzko Ekintzarako Europako Sareak. Edonola ere, erakunde horrek gogorarazi du Bruselak orain proposatu dituen neurriak hartuta ere, ezin dela baztertu beroketa globala bi gradutik gorakoa izatea.

Europako Batzordeak proposatu moduan isurketak %80 murrizteko, «Europar Batasunak 2030erako ezarrita dituen helburuak igo egin beharko ditu». Egungo aurreikuspenen

arabera, %45eko murrizketa lortu nahi du urte horretarako Batasunak. WWF Naturaren-tzako Mundu Funtsak, berriz, helburua isurketarik gabeko Europa dela esan du: «Batzordeak frogatu duenez, horrela hazkundera indartu eta lanpos-

ATZERRIA / Jon ELGETA

Europako Batzordeak aurkeztu duen klima aldaketari aurre egiteko epe luzerako estrategiak 2050. urtean kontinentean karbono dioxido isuririk ez izatea du xede. Horretarako, estatuek zein erakunde komunitarioek egungo egitasmoak aldatu eta anbizio handiagoko planak prestatu behar dituzte. Eta, noski, baita bete ere.

Antonio Guterres Nazio Batuetako idazkari nagusia, COP24 klima aldaketari buruzko gailurraren irekieran, Poloniako Katowice hirian, astelehenean. Janek SKARZYNSKI / AFP

tuak sortuko dira, eta milaka milioi euroko onura lortuko du gizarteak osasun arloan, erregai fosilak inportatzen gastatzen diren bilioiak aurrezteaz gain».

Beste begirale batzuek nabarmendu dute jada ez dela

nahikoa agintariei konpromisoak exijitzea eta derrigorrezkotzat dute mobilizazioen bidea hartzea. Daniel Tanurok «Viento Sur» aldizkarian gogorarazi du hamarkadak daramatzagula klimarekin lotutako neurrien inguruko kontuak gobernuen esku uzten eta emaitza mehatxuak gora egitea izan dela. «Benetako demokrazia alde batera utzita» ikusten du agintarien jardueran.

Tanurok elkarrekin lanean ikusi nahi ditu ingurumenaren aldeko mugimenduak, sindikatuak, nekazariak, feministak, jatorrizko herriak: «Jada ez da nahikoa haserretzea, erabakiak hartzen dituzten agintariak es-tutzen saiatzea. Matxinatu egin behar dugu, borrokek bat egin behar dute, manifestariak milioika irten behar dute kale-ra, energia fosilen inguruko inbertsioak oztopatu egin behar ditugu, lur pilaketarekin eta militarismoarekin egin behar dugun moduan». Ekintzaileek klimaren aldeko greba bat deitzea proposatu dutela jakinarazi du Tanurok.

SUTEAK, UHOLDEAK, ELURTEAK...

Eguraldiari buruzko informazioak gero eta espazio gehiago hartzen du gure hedabideetan: suteak ez direnean, uholdeak; elurtea ez bada, lehortea... Ekaitzak gero eta ikusgarriagoak dira: telebistan ikusteko propio diseinatutakoak dirudite.

Baina zientzialariak argi eta garbi esaten digute begi bistan dugun ikuskizun hori ez dela turistak erakartzeko beste tresna bat, geure bizimodua aldatzea exijitzen digun fenomenoaren adarra baizik. Eta aditu horiek beraiek gogorazten dute klima aldaketari aurre egin nahian orain urte batzuk munduko agintariak



lortutako Pariseko Akordioan finkatutako karbono dioxidoaren murrizketa helburuak ez direla beteko. Ezta pentsatu ere!

Hilaren 2an hasita, Polonia-ko Katowice hirian COP24 Klimaren Gailurra egiten ari dira. Hitzordu hori dela-eta, Nazio Batuek “Isurien arraila” izenburuko txostena eman dute ezagutzera. Datuak oso kezkarriak dira: negutegi efektua eragiten duten gasen isurketak gora egiten jarraitu zuen 2017an (karbono dioxidoari dagokionez, 53,5 gigatona, aurreko urtean baino 0,7 gigatona gehiago). Mundu osoaren barne produktu gordinak gora egin izanak eragin du bilakera hori.

Gauzak horrela, txostenaren egileek diote bi graduko beroketa baino handiagoa saihestu nahi baldin bada, 2030erako “Isurien arraila” erabat itxi beharko litzatekeela. Horrek eskatuko luke 2030ean 2017an baino %25 gas gutxiago isuri beharko litzatekeela. Anbizio gehiagoz jokatu eta beroketaren marka 1,5 gradutan ipinitz gero, gaur egun egiten den ahalegina boskoiztu egin beharko litzateke. Gaur egungo jarrerari eutsiz gero, mendea bukatzerako hiru graduko beroketa izango genuke, eta are handiagoa hortik aurrera, egun egiten diren kalkuluen arabera.

Joyce Msuya Nazio Batuen Ingurumen Programako zuzendariaren iritziz, «zientziak oso garbi hitz egin du: gobernuek bizkorrago egin behar dute aurrera, eta premia gehiagoz gainera. Dugun berri ona da gure esku ditugula sute hori itzaltzeko behar ditugun baliabide guztiak».

Nazio Batuen Erakundearen arabera, hemendik 2030era



Poloniako Belchatoweko energia planta. Karbono dioxidoaren isuriek in amaitu nahi du Europako Batzordeak. Darek REDOS | AFP

gas kutsakorren isurketa %10 murrizteko nahikoa litzateke erregai fosilei gaur egun ematen zaizkien diru-laguntzak kentzea. Nazioarteko erakundeak uste du ezarri beharreko aldaketak abian jartzeak ez dituela derrigorrez arazo ekonomiko zein sozialak eragin behar. Ezer egin gabe geratzea askoz ere garestiago aterako zaigu.

Egileek «arrakastaren faktoreak» aipatzen dituzte beren lanean. Nabarmentzekoa da agintariei arriskuak hartzea tokatzen zaiela: konpainia pribatuek negozio aukerarik ikusten ez duten arloetan, agintariek hartu beharko dute aurrea eta bide berriak zabaltu. Ekonomia osoarentzat «politika berdeak» diseinatzea ere agintean daudenei tokatzen zaie.

BRICS taldeko bost estatuei (Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrika) leporatzen diete adituek klima aldaketaren aurkako borrokan azken

urteotan hain gutxi aurreratu izana. Karbono dioxido gehien isuri duten AEBak multzo berean kokatu behar dira eta Donald Trump egungo presidentearekin ez dirudi norabide hori aldatzeko aukerarik izango denik. Planetaren tenperatura bi gradu edo gehiago igozten bada 2050. urterako, estatu horiek izango dute erantzukizun nagusia.

BCG Boston Consulting Group etxeak beroketa globalarekiko estatu horien jarrerak aztertu ditu, eta bide horretan oso aurreratuta dagoen Alemaniarekin alderatu ditu emaitzak. Ondorio oso garbia ateratu dute: gobernuak ez dira oraindik ere jabetzen klima aldaketak eragingo dituen kalte larriez eta, horrexegatik, beren politikak oso desegokiak dira, eta hondamendiak baino ez dituzte ekarriko. Orain dela aste gutxi batzuk IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arterako Taldeak berak gogorarazi

zuen bide okerretekin goazela. Zientzialariek behin eta berriro diote negutegi efektuaren ondorioak saihesteko modukoak direla eta fenomeno arriskutsu eta indartsu horren atzean gizakion jardura dagoela.

IPCC taldeko adituek nabarmendu zuten urrian AEBek Pariseko Akordioa utzi izana, Trumpen Administrazioaren erabakiaren bitartez, oso kaltegarria dela planeta ikaragarri berotu ez dadin. Munduko lehen potentzia nagusiak atzera egin izanak ahuldu egiten ditu beste guztien aurrerapenak, eta ekonomikoki hain indartsu ez diren herrialdeek bide bera hartzeko tentazioa dute Queenseko dirudunaren erabakien eraginez.

Testuinguru horretan, BRICS taldekoek ez dute ahalegin ikaragarri bat egiteko beharrik ikusten: beraien lehentasuna garapen ekonomikoari eustea da, nahiz eta horretarako klima aldaketa bizkortzen dituzten neurriak hartu behar badiutuzte ere. Karbono dioxidoa arazo moduan ikusten ez zen garaiko neurriak hartzen dituzte, eta adituek diote zaila izango dela bide horretatik ateratzea, herrialde industrializatuetan lortu den garapen maila eskuratzea eskubidetzat baitute, eta askoz ere baliabide gehiago kontsumitzen dituzten lekuetako herritarrek alfer-alferrik esango baitiete betirako pobrezian geratzeko.

PARISEKO ITUNA EZ DA NAHIKOA

Edonola ere, IPCC taldeko zientzialariek beraiek onartu izan dute Parisen sinatutako ituna ez dela nahikoa, ez dela egokierak exijitzen duen bezain ambiziozua, eta, hemendik urte batzuetara gure planeta bakarra infernu bihurtu ez dadin,

ahalegin handiagoa egin behar dela, lanean berehala hasita gainera!

Parisen bi gradutako tenperatura igoera ezarri zen hautsi ez beharreko marka moduan, baina uharte-estatuen, herrialde pobretuen, zientzialarien eta gizarte zibilaren presiopean marka hori 1,5 gradutan ipintzeko aukera aipatu zen, inolako konpromisorik gabe. Marka hori kontuan hartzea ezinbestekotzat jotzen dute, berriz, IPCC taldekoek.

«Gradu erdia besterik ez!», pentsa dezake irakurleak. Baina bizimodu posiblearen eta ezinezkoaren arteko marka hor kokatzen dute gaur egun adituek: gradu erdi horren arabera dago eremu zabalak lehortzeko aukera, muturreko beroaldiak erregistratzekoa, ura lortzeko arazo larriak izatekoa, lehorte hilgarriak jasatekoa... Ezagutzen dugun bizimodua ezinezko bihurtuta. Mapak ere aldatu beharko dira, itsasoen mailak gora egitearen eraginez.

Jakina, makina bat ikerketak frogatu duenez, fenomeno horien biktima nagusiak, biktimenak, herrialde pobreetako herritarrak izango dira. Ehunka milioi lagunak bizimodua kaltetuko dute hondamendi ezberdinek eta, ondorioz, errefuxiatuen fenomenoak gora egingo du bazter guztietan. Datoren hamarkaden bilakaera izugarria margotu digute zientzialariek herritarren zein agintarien jarrera aldaketa lortu nahian: «Hogeita bi urteko epean beroketari gradu eta erdiko markan eusteko moduan gaude. Bestela, klima aldaketaren eragile nagusiak diren erregai fosilen erabilera kome-ni baino gehiago luzatuko da; ikatza eta gasetik hasi eta petrolioraino».



Ezkerrean, izotz formak, Siberiako Jakutsk hirian dagoen Permafrostaren Historiaren Museoan. Eskuinean, Lahoreko kale bat, kez beteta. Mladen ANTONOV
Arif ALI / AFP

Mundu osoan isurtzen den karbono dioxidoaren %60tik gora BCG Boston Consulting Group etxeak aztertu dituen herrialdeek (BRICSeko bost estatuak, AEBak eta Alemania) isurtzen dute. «Agenda ekologikoa» berenganatu duten estatuek zenbait oztopo aurkitzen dituzte gaur egun epe motzean, baina aurrera begira «arrakastaren motore bihurtuko dira». Jens Burchardtek eta Philipp Gerbertek zuzendu duten ikerketak onartzen du klima aldaketari eusteko mundu osoa hartzen duen programarik ez izateak epe laburrean kaltetu egiten dituela bide berrian hasi diren nazioak, orain abian jarritako neurri batzuk

AEBetan agintera Donald Trump iritsi izana berri txarra izan zen klimarentzat, eta datorren urtarriaren 1ean Brasilen Jair Bolsonaro presidente kargura iristea ez da hobea izango

Joyce Msuya Nazio Batuen Ingurumen Programako zuzendariaren iritziz, «zientziak garbi hitz egin du: gobernuak bizkorrago egin behar dute aurrera, eta premia gehiagoz»



arlo makroekonomikoan ordainduko baitituzte. Baina azterketa aurrerago eramanez gero, «gaurko hazkundearen arazoak oparotasunaren motor ukaezin bihurtuko dira bihar». Helen Mountford ikerlariak beharrezkotzat jotzen du gaur egun askotan ontzat ematen den ideia okerra baztertzea: «Ikatza eta beste erregai fosilak baztertzea garestiegia dela dioena».

HAUTESKUNDEETAN ZIGORTZEA

IPCC Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak planeta gehien kutsatzen duten herrialdeak estutu nahi ditu eta, horretarako, ez du baztertzen klima aldaketa bizkortzen ari diren agintariak hauteskunde egunean zigortzea. Zientzialariek gogorarazten dute makina bat lurralde, hiri, konpainia, inbertsiogile eta elkarte urrats egokiak egin dituztela beroketari eutsi ahal izateko, baina potentzia nagusiek bide bera hartu ezean, ahalegin horiek ezerezean gera daitezkeela. Horregatik, AEBek eta BRICSeko herrialde-

ek hartu duten bidea aldatzea guztiz ezinbestekotzat jotzen dute. Energia berrien aldeko apustua egin dezaten gomentatzen diete. Eta nazioarteko konpromisoak bortxatzen dituzten estatueta herritarrei eskatzen diete agintari horiei botorik ez emateko.

AEBetan agintera Donald Trump iritsi izana berri txarra izan zen klimarentzat, eta datorren urtarriaren 1ean Brasilen Jair Bolsonaro presidente kargura iristea ez da hobea izango. Hauteskundeak egin aurretik herrialdeak Pariseko Akordioa uzteko aukera aipatu zuen, baina azkenean atzera egin zuen. Hori bai, hauteskundeak irabazi zituen eskuin muturreko politikariak «ekologismo xiita» eta «isunaren industria» salatu izan ditu, IPCCko zientzialariei zer kasu egingo dien garbi utziz. Datorren urtean egingo den COP25 gailurra Brasilen egitekoa zen, baina atzera egitea erabaki dute agintari berriek, argudio «finantzarioak» direla-eta. Brasilgo agintari berriak ez dira klimaren lagunak.

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DAGOENeko ZURE KIOSKOAN SALGAI



SRI LANKA

Paradisuak alde ilunak ditu

«Indikoko perla» 2019an bisitatzeko «munduko herrialderik onena» hautatu du Lonely Planet-ek. Izendapen horrek polemika piztu du, ordea, komunitateen arteko gatazkak direla medio.

Eta gainera: L'viv, Ukrainiako bitxirik preziatuena • Tanzaniako Arusha parke nazionalean barrena • Asia erdialdean dagoen Zetaren Bidearen esentzien bila

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

{ profila }

Aimar Etxeberria

Colorado Springs (Colorado, AEB), 1978ko urria. Ron Stallworth, irakasle izan asmo zuen polizia, eta Ku Kux Klana; eta inork gutxik espero izango zukeen istorioa: beltz baten infiltrazioa arraza zuriaren nagusitasuna aldarrikatzen duen taldean. Tunika zuriak eta gurutzeak sugarretan, David Duke eta Ralph David Abernathy, supremazista zurien martxak eta talde antirrazisten mobilizazioak; “Ku Kux Klanean infiltratuta”, zinema aretoetara iritsi den Spike Leek zuzendutako kontakizun pertsonala.

Egunkariko iragarki bat du abiapuntu istorioak, eta helbide bat: «Ku Kux Klan, 4771 posta kutxa, 80230, Security, Colorado». Bertara idaztea erabaki du Colorado Springsko Poliziaren Inteligentzia Departamentuan lan egiten duen Ron Stallworthek; klanera batu nahi du. Bi asteren buruan, deia; Ken O'Dell, klanaren hiriko arduraduna, da telefonoaren beste aldean dagoena, aurrez aurre geratzea proposatuz. Abian da infiltrazioa.

NI AHOTSA, ZU AURPEGIA

Lau urte daramatza ordurako Stallworthek Colorado Springsko Polizientzako lanean. 1972an egin zioten lehen lan-elkarrizketa; ez zen arraza beltzeko agenterik orduan unitatean. Lehen galdera, zuzenean harira: «Ezagutzen duzu Jackie Robinson? Izango al zinateke gai, hura bezala, probokazioetan ez erortzeko?». Beisbol jokalaria zen Robinson, aipatu kirolaren historia garaikidean goreneko mailan jokatzera iritsi zen lehen afroamerikarra. Ziotenez, haren arrakastaren zergatietako bat zen bere arraza kolorea zela-eta egiten zizkieten irainei kasurik ez egitea.

Infiltrazioa Ku Kux Klanean izanagatik, beltzen artean “ezkutatzea” da Stallworthen lehenengo isilpeko lana. Stokely Carmichael –Pantera Beltzen buruzagietako bat– dator hirira hitzaldi bat ematera. Eskubide zibilen aldeko borrokaren ikonoa bera, haren per-

«KU KUX KLANEAN INFILTRATUTA»

Aurpegi zuriko polizia beltz bat, supremazisten artean



Lerroon gainean, Ron Stallworth eta David Duke, telefonoz berriketan. Eskuineko irudian, argazkia ateratzen, Stallworth, Duken bizkartzain zela.

GAUR8

tsuasio gaitasunen beldur da agente poliziala. Stallworth bera, behintzat, liluratuta utzi du; dinamikoa zaio Carmichaelen jarduna, kasik hipnotikoa.

O'Dellekin irekitako komunikazio bideak, bere aldetik, eman ditu fruituak, eta hitzordua zehaztu dute; azaroaren gan bilduko dira. Arazo bat dauka, baina, Stallworthek: beltza da. Eta beltza den heinean, ezin Ku Kux Klaneko lider batekin aurrez aurre bildu taldera gehitzeko jarraitu beharreko urratsen inguruan hitz egiteko. Aliatuak behar ditu, bere izenpean aurpegia emango duen norbait behar du; Chuck –unitateko kidea– izango da paper hori bete-ko duena, Stallworthen ahotsari aurpegia jarriko diona. «Polizia beltz bat Ku Kux Klanean infiltratuta? Erokeria! Uste duzu ez direla ohartuko?», gustatu zaio plana Chucki. Eta aurrez aurreko lehenengo bileran, albistea: David Duke, Ku Kux Klaneko “Mago Handia”, Colorado Springsen izango da urte hasieran. Bisitaren harira, 100 lagunez osatutako tropelak, tunika zuriak soinean, desfilatzea da helburua.

Ku Kux Klana ez da talde biolentoa, O'Dellen arabera, ez bada defentsa propiorako bederen. Hori bai, gurutzeak

erreko dituzte hiriko puntu erreferentzialetan; nabarmendu egin nahi dute. James Bond agente sekretuaren film batean ikusitako metodoa erabiliz emango diete su; pospolo kaxa batean sartutako zigarrokin batek egingo du metxarena, horrek denbora emango baitie likido sukoiz bainatutako gurutzeak su hartu aurretik alde egiteko. Historikoki, klanaren ikurretako bat da sugarretan den gurutzea, tunika zuriak janztea den bezala. Horiekin, beltzen artean terrora hedatzea dute xede. Superstiziosoak dira beltzak, eta mamuekin erlazionatzen dituzte tunika zuriak; borrokan eroritako soldaduen espirituak dira beltzentzat. Bileraren amaieran, “The Crusader” egunkariaren pare bat alerekin batera, Ku Kux Klanera batzeko baimen-orria eman dio O'Dellek Chucki.

ARGAZKIA, ELKARREKIN

Urtarrilaren 7an, David Dukek Colorado Springsen bere agerraldia egin bezperan, onartuko dute Chuck, ofizialki, Ku Kux Klanean. Ordurako, lortu dute klanean bigarren agente bat ere infiltratzea: Jim. Biek ala biek gaintitu beharko dute hastapen ekitaldia. Denve-



rrren izango da eta, besteak beste, honako arau-sorta onartu beharko dute klanera batu nahi duten kide berriek: arraza zuriaren jarraikortasunaren, zaintzaren eta garapenaren alde atse-denik gabe lan egitea; Ku Kux Klanari leiala izatea, hura baita egiazko klan bakarra; agintarien esanei men egitea; kalez jantzitako polizia klanaren jardueren berri ez ematea; eta, anaitasunez, sozialki eta ekonomikoki klanarekiko dituzten obligazioei erantzutea, hil artean. David Duke, klanaren “Mago Handia”, presente dago ekitaldian.

Colorado Springsera, baina, urtarrilaren 10ean iritsiko da. Eta nola den patua; Ron Stallworth izango da haren bizkartzaina hirian igarotzen duen denboran. Ordura artekoa sinestezina bazen, surrealista da orain egoera; David Dukek ezagutzen duen Stallworth Ku Kux Klanera batu berri den arraza zuriko pertsona bat da, jakin gabe bizitza errealeko Stallworth arraza beltzeko polizia bat dela. Eskua ematen diote elkarri, eta errespetuz hartzen du Ku Kux Klaneko “Mago Handiak” bizkartzain izango duen agente beltza. Stallworthek, erdi txantxetan –lagunek ez diotela sinetsiko aitzakiatzat hartuta–

argazki bat eskatzen dio supremazista zuriari. Uko egiten dio honek, baina Chucken laguntzari esker lortu du Stallworthek infiltrazioaren tamaina agerian uzteko behar zuen frogia.

GUZTIA, KE

1979ko apirilean geratuko da infiltrazioa bertan behera. Aurretik, baina, bada Ron Stallworthen ikerketak argitara atera eta aipatzea merezi duenik. Esaterako, Ku Kux Klanaren eta Posse Comitatus taldeen arteko elkarlana. Klaneko kideak supremazista zuriak izateagatik nabarmen badira, are erradikalagoak dira Posse Comitatus taldeen jarraitzaileak. Eskuin muturrekoak dira, eta lokalismoa defendatzen dute; ez dute Gobernu Federala aintzat hartzen. AEBetako konderri bakoitzeko *sheriff*-a da agintaritzaren gorenaren euren arabera, eta soilik horien aurrean erantzuten dute. Posse Comitatus taldeetako kide batzuk superbibentzialistak dira; epe laburrean guztia pikutara joango dela uste dute, eta ustez horretarako prestatzen ari dira.

Bada bi taldeek amankomunean duten elementu bat: “The Birth of a Nation” (Herrialde baten jaiotza) film mu-

tua. Thomas Dixon Jr. idazlearen nobela batean oinarritua, eta D. W. Griffith-ek zuzendua, AEBen “berreraikitze” garaian Ku Kux Klanak jokaturako papera goraipatzen du, arraza zuriaren heroismoa nabarmenduz eta beltzak bortxatzaileak diren estereotipoa indartuz. Aipatu pelikula jartzen zuten klanera kide bat gehitzen zen oro, Posse Comitatusen onespina ere izanik.

Bestalde, Ku Kux Klanak gizartearen eremu ezberdinetan zuen indarra ere agerian uzten du Stallworthen ikerketa lanak. Hala AEBetako Armadan nola NORAD erakundean, eremu politikoraino iritsi zen klanaren eskua. Benjamin F. Stapleton, 1923tik 1947ra bitartean Denverreko alkatea izan zena, da esandakoaren adierazgarri; Ku Kux Klanaren ideologia eremu politikora eramatearen ardura izan zuen.

Ikerketa bertan behera uztearen arrazoi nagusia Ron Stallworthi edo, hobeto esanda, hura pertsonifikatzen zuen Chucki, O’Dellek egindako proposamena izan zen; hiriko taldearen ardura hartzeko eskatu zion. Hiria utzi behar zuela-eta, arduradun baten beharrezan zen klana, eta nori eta Stallworthi proposatu postua. Agintariekin

LIBURUA ETA FILMA

«Black Klansman: Race, Hate and the Undervocated Investigation of a Lifetime» liburuak Ku Klux Klanen infiltratutako Ron Stallworth polizia beltzaren istorioa kontatzen du. Ernesto eta Carlos Estrellak gaztelaniara itzuli dute liburua eta Capitan Swing argitaletxeak kaleratu berri du «Infiltrado en el KKKlan» izenburupean. Liburuan oinarritutako Spike Lee zuzendari afroamerikar ezagunaren izen bereko filma ere zinema aretoetan da uneotan.



proposamena partekatuta, ikerketa bertan behera uzteko agindu zioten infiltratuari, berak ongi ezagutzen ez dituen arrazoiengatik.

Ikerketak, baina, eman dio bide aitzindaria izan zen polizia beltz hari orduko eta egungo egoeren artean paralelismoak egiteko. Esaterako, orduko erretorika biolento bera nabari du egun Stallworthek, «intolerantea eta gorrotoz betea». «Orduko diskurtso bera ari gara entzuten; are gehiago, egungo politika nazionalistak Dukek sortu eta garatu zituen bere garaian», dio Stallworthek epilogoan. Era berean, asko ikusten du Ku Kux Klanetik XXI. mendeko Alderdi Errepublikanoan; Duke bera, birritan demokratekin ahalegindu ostean, errepublikanoen ordezkari izateko hautatu zuten Louisianako Ordezkarien Ganberan.



Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Kiruna

Udaletxe berria du Kirunak (Suedia, 18.000 biztanle) eta eder askoa da. Henning Larsen estudio daniarrak diseinatu, urrezko kubo batzuk inguratzen dituen eraztun formako eraikina da. Eraztunean administrazio-bulegoak daude; urrezko kuboetan, aldiz, batzar-aretoa eta eskualdeko artelanak biltzen dituen galeria publikoa. Sarreratik *foyer* handi batera goaz, eta bertatik jatetxe publiko argitsu batera edo galeriara, bulegoak direlarik gun e pribatu bakarrak. Hala, espazio publikoak eraikinaren erdigunean jarritz herriarrrek inongo oztoporik gabe zeharkatu ahal ditzaten, demokraziaren kontzeptua azpimarratu egiten da diseinuaren bidez.

Honaino dena ok. Azken finean, eraikin baten ohiko azalpena da. Deigarriagoa da, ordea, udaletxe berri dotoreak ondoan duen erloju-dorrea, 1958koa, udaletxe zaharretik kendu eta berriaren alboan jarri dutena. Keinu nostal-

giko bat eraikin garaikidearekin batera. Kontua da abandonatu egingo dutela udaletxe zaharra; are gehiago, abandonatu egingo dituzte herriko eraikin ia guztiak. Denak, 21 izan ezik.

Sentimendu gainbaloratua da nostalgia, baina iraganarekin lotzen gaituen mekanismoa ere bada eta ausartuko naiz esatera justifikatua dagoela kasu honetan, herri zaharra abandonatu eta hiru kilometro ekialdera berria egingo dutela kontuan hartuta, 21 eraikin historikoak lekuz mugituz bidenabar.

“The Simpsons” telesailari hainbatean aitortu izan zaio etorkizuna iragartzeko gaitasuna. 1998ko “Trash of the Titans” atalean Springfield herria zortzi kilometro mugitu behar izan zuten, lurpean axolagabeki gordetako zabor tona guztiak azalera ateratzen hasi eta herria zakarretan itotzen hasi zitzaie-nean. Kirunan arazoa ez da zaborra, burdina baizik. XX. mendearen hasieran jaio zen Kiruna garaikidea burdin meategia irekitzearekin batera, eta

XXI. mendearen lehen erdian hilko da, burdin meategia herria pixkanaka irensten ari da-eta. Deformazioak eta lur mugimenduak gero eta ohikoagoak dira, eta mahai gainean ez dago alternatiba hobeagorik: 18.000 biztanle eta 21 eraikin –tarte eliza– literalki lekualdatzea da geratzen den aukera bakarra.

Eliza, erloju-dorrea eta beste zenbait eraikin historiko mugitzeak trantsizio aparatoso hau apur bat malgutzea du helburu, herri berria herri zaharrenekin lotzeko nolabait. Udaletxe berriak, bitartean, nortasun komunitarioaren sustrai geografiko berria izan nahi du, *genious loci*-a galdu ez dadin lagun dezakeena. Azkenik, burdin meategiak orain arte bezala jarraituko du, lanean, herriko ekonomia bermatuz hiru kilometro urrunagotik.

Bizirik mantentzen zaituenak hil zaitzake, kontuan hartzeko moduko aholkua iparraldeko 68 latitudetik, Kirunak lurpea nola edozer ustiatzera ohitu garen garaiotarako. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

Voxeko buruaren Smith and Wesson errebolberra

Nazioarteko prentsan, bazirudien orain arte Espainia oasi bat zela. Faxismoaren olatua ez zela han hondarreratzen. Frankoren nostalgiko gutxi batzuen kontua baino ez zela. Muturreko katoliko integristak bazirela, mota guztietako erreakzionario apur batzuk ere bai, baina bazterreko fenomeno zela, politikoki gehiegi ez kezkatzekoa. Satorrak egin zuena egiten zen: buztanaren truke begiak saldu eta lurpean bizi, itsu. Inperiorik gabeko inperialisten desira zapuztuak euskaldun, katalan eta galiziarren kontra sendotzen zituztela ez zen ikusi nahi. Independentistak, gorriekin batera, akabatu beharreko deabruzat jotzen zituztela, eta etsaion kontra bigunegi, “politikoki zuzen” ez zegoela ekiterik.

Espainiaren kohesioak zezenketak, ehizak, hispanitatearen handitasunak ditu osagai. “Feminista eta marikoen ideologia subentzionatu” batek burua jan omen die espainolei, etorrikin-hordek espainiarren ondasunak bipildu dituzte. Independentistei gehiegi eman zaie, urrutiegi joan dira. Faxistentzat, kontraerreforma behar da, lehen goratzea. Eta onez onean

nahi ez badute, derrigorrean, indarrez. Voxeko buru Abascal audioarrak bezala, harro abisatzen baitute Smith and Wesson errebolberra soinean daramatela.

Munduan hedatzen ari den olatu faxistaren gainean, haizea alde, guztiz puztuta datoz. Vox edo PP, eskuin muturra edo muturreko eskuina, berdin da. Laranja koloreko izan, igoal. Beraien M-15 partikularra bizitzen ari dira. Ezkerra hustuta eta galduta dagoez, orain dutela erasorako unea uste dute. Eta aurre egingo dien defentsa on baten faltan, Euskal Herria, Katalunia eta Galiziaren askapenerako asmoak txikituko dituztela konbentziturik daude. Azken urteotako norabide okerra zuzendu eta belaunaldi batzuetarako

“abenturatarako” gogorik eta indarrik gabe utziko dituztela ziur daude.

Independentistak ohartu dituzte, Espainia bakar eta handia –Trumpen “*Make America Great Again*” horren kopia– dute ikur, “marxismo kulturalaren” adierazpen ororen balazta. Errege emerituak aspaldi esan zuen: «Espainia neurrigabeki zorionekoa izan da Franco bezalako gizon aparta izateagatik». Egun «*Franco! Franco!*» ez dute zertan oihukatu, aski dute «*a por ellos! oe!, oe! oe!*» futbolero horrekin.

Eta hori ikusteko ez da Andaluziaraino joan behar. Ez da Voxek ekarri duen nobedadea, Vox bera, zerbait izatekotan, gaitz handiago baten sintoma baita. Aspal-diko kontua da, beti hor egon dena, sekula ez dena desagertu, sekula ez dena errotik garaitu. Altsasun ikusi

Herri bezala gure defentsa antolatu eta beste herrieekin batera kontraerasoa jo. Hemen, antifaxismoa independentismoa da. Independentzia barik, hor kanpoan, basakeria baino ezin dugulako espero

ditugu, Nafarroan amorratuta dabilta, hemengo go-tzain eta oligarka ezagunak daukate lehen lerroetan. Faxismoa da, ez agian (oraingoz) bide bazterretako terrorean eta kale biolentzian adierazten den faxismo klasikoa, baina osagai guztiak eltzean daude eta menua zerbitzatzear dute.

Herri bezala antolatu behar dugu gure eraso. Eta, norberak berean, beste herrieekin batera jo. Herri akordioa eta herrien arteko akordioak, herritarren errepublika baten forma hartuko duen estatu independentea(k) lortzeko. Antifaxismoa, gaur, hemen, independentismoa da. Independentziarik gabe, hor kanpoan, basakeria baino ezin dugu espero. •

EUSKHARAN ELKARTEA

Euskaraz jarduteko txoko xumea, hogeit urteren buruan, proiektu integrala

Gasteizko Aranbizkarra auzoko eta inguruko bizilagun euskaldunek txoko bat behar zuten joan den mendearen amaieran. Auzo harekin Arantxabela eta Arana hartzen zituen Zazpigarren Alaba auzo elkarteak bizilagun haien behar hura asetzeko ekimen bat bultzatu zuen: Euskharan Kultur Elkartea, Aranbizkarrako Amaia zentroan garatuko zutena. Ekimen xume hura hazten hasi zen eta hogeit urteren buruan elkartearen jarduerak hiri osora hedatu dira. Gasteizko Udalarekin hitzarmen sinatuta, urtez urte proiektu berriak aurkeztuz joan dira, gaur egun proiektu integrala izan arte.

Elkartearen hogeigarren urteurrenean, GAUR8 Amaia zentrorra joan da bisitan, auzo bertako kide batekin hitzordua jarrita. Ez edonolako gidaria, gainera, elkartearen koordinatzaile Iratxe Goikoetxea baitugu atean zain.

AMAIA ZENTROA

Haur-eskola izandako eraikinerara sartu eta berehala hasi da Iratxe beheko solairuko gelak erakutsi eta bakoitzean zer egiten duten azaltzen. Sarreraren gela bat Zazpigarren Alaba Aranbizkarrako Auzo Elkartearen egoitza dela diosku. Barruraxeago egin eta liburutegira sartu gara. Bertako liburu bat hartzeko ez da txartelirik behar. Nahikoa da datuak ematea. Bertan aitona-amonentzako eskolak ere ematen dituzte. Bai, aitona-amonak euskara ikastera joaten dira, ilobekin hitz egin ahal izateko. «Nahikoa lasaiak izaten dira eskolak, ez baitute inolako presiorik», dio Iratxek. Beste gela batean

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Inguru erdaldun batean, Gasteizko Aranbizkarra auzoko euskaldunak sakabanatuta zeuden, eta, hala, euskararen ezagutzak gora egiten zuen baina erabilerak ez. Eta Amaia zentroa lortu zuten mintzapraktika egiteko. Hogeit urte joan dira, eta Euskharan Elkarteak haur, gazte eta helduei euskarazko hamaika zerbitzu eskaintzen dizkie.

ere ematen dituzte eskolak, helduentzako euskal dantzak irakasteko erabiltzen duten batean, hain zuzen. Aitona-amonen eskolak hiru mailatakoak dira, hutsetik hasita. Iratxek dioenez, nahiko dinamiko eta

dibertigarriak izaten dira. «Oso pozik etortzen dira, eta ikasten dutena erabili egiten dute... Ez da gutxi!». Ordu eta erdiko saioak izaten dira.

Beheko solairuko gelak, beraz, gehienbat helduen hez-

Amaia zentroko liburutegia eta aitona-amonentzako euskara ikasgela. Endika PORTILLO | FOKU



kuntzarako erabiltzen dituzte la dirudi. Baina ez bakarrik, bertako beste gela bat gazteen txokoa baita: Kuadrillategi. Ostiral arratsaldean bertara biltzen diren 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako txokoa da. Zer egiten duten galdetu dugu. «Eurek erabakitzen dutena», erantzun du Iratxek. Izan ere, txoko autogestionatu eta asanblearioa da. Zentroko begiraleek baliabideak eskura jartzen dizkiete eta dinamizazio lanak egiten dituzte, baina bertara biltzen diren gazteek erabakitzen dute programazioa eta hori nola gauzatu.

Auzokideek ere erabiltzen dute noizbehinka gazteen gela hori, bilerak egiteko. Azkenaldion talde bat inauteriak prestatzeko biltzen da bertan. Bestetik, Bilgune Feministak ere egiten ditu bertan bilerak... Talde askok partekatzen duten gela da, beraz.

Beheko solairuko bazter batean, Iratxeren bulegotxoaren ondoan, Liburu Trukea dago, Euskharan elkartearen eskaintzen duen beste zerbitzu bat. Bertan dauden liburu batzuk hautatzen duenak izena ematen du eta zer liburu hartu duen eta horren truk zein utzi duen apuntatu egin beharra dauka, besterik ez.

Lehen solairura igo eta haurren txokora joan gara lehenik. Bertan larunbatero lau eta hamar urte bitarteko haurrek goiz dibertigarria pasatzeko aukera dute, lehenengo zinema eta gero tailerrak eta jolasak. Ez da horretarako leku bakarra, ordea. Amaia zentroko gelan ez ezik, Gasteizko beste zenbait auzotan ere goiz ederra pasatzeko aukera dute haurrek: Zabalganen, Lakua-Arriagan eta San Martinen ere atondu dituzte haurrentzako

lokalak, Euskharanen programazioaren barruan, jakina.

Ondoko gelan Arabako Bertsozale Elkartearen egoitza dago, eta haren aurrean, Bertso Eskola; Unibertsitateko bertsozaleak ere biltzen dira bertara. Ia egunero agertzen omen dira baten batzuk. Beste gela batean alboka eskolak ematen dituzte, eta, arrakasta duen jarduera denez, beste gela bat ere erabiltzen dute horretarako. Gela berean askotariko jarduerak egin daitezke: bilerak, euskara eskolak, bertso entseguak...

Eraikina haur-eskola izan zen arrastoa nabarmena da komunetan, ez baitituzte kendu bertako konketa txiki-txikiak. Lekua oso ondo aprobetxatuta dago. Ez da txikia, baina alde zuriarekin jarduerak kopuruaren berri izanda, askoz leku handiagoa zela espero izatekoa zen.

BILAKAERA

Esan bezala, Euskharan Kultur Elkartea 1998. urtean sortu zen Gasteizko Aranzabizkarra auzoan, Zazpigarren Alaba auzo elkarteko Euskara Batzordeak bultzatuta. Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatu eta urtero-urtero proiektu bat aurkeztu izan du.

Hausnarketa baten ondorio izan zen Euskharanen sorrera. Populazio kopuru handia eta euskaldun kopuru txikia duen Gasteizko ingurune horretan, euskal hiztunak nahikoa dispersatuta zeuden, eta euskararen ezagutza gero eta handiagoa bazen ere, erabilerak ez zuen aurrera egiten. Egunotan, Euskaraldia igaro berritan, oso ezagun gertatzen den ondorio bat ateratu zuten: «Lehenengo hitza gaztelaraz izaten da harreman berrietan, eta oso zaila da gero ohiturak aldatzea».



Elkartek proiektu xume batekin eman zituen bere lehenengo pausoak. Arabako Bertso Eskolarekin batera, mintza praktika saioak abiatu zituen. «Gasteizko hiriari euskaraz ari zeko gune eroso bat eskaini nahi genion, familiak eta harreman sareak euskalduntzeko urrats bat eman eta euskaldunen sarea berregituratzen saiatuz». Ikastetxe eta euskaltegie-

Goian, Iratxe Goikoetxea, Euskharan elkarteko koordinatzailea. Azpian, haurrentzako gela. Endika PORTILLO | FOKU

tan euskarak espazioa irabazten zuen bitartean, kalean ez zen horrenbeste nabari. Horregatik, «kaleko eta etxeko espazioak zein ezagutzaren eta praktikaren arteko espazio hori irabazten joatea da elkartearen helburu nagusietako bat».

Urteak pasa ahala, Euskharan izena gero eta ezagunagoa egiten joan zen Gasteizen eta, lan handiaren ondoren, es-

kaintzen zituen jarduerak hiriari zehar hedatu ziren. Gaur egun proiektu integrala osatzeko lortu du, Gasteiz osoko hainbat auzotan zabalduta, San Martin, Errekaleor eta Larkuan, hain zuzen.

Iratxe euskara irakaslea da, hasierako mintzapraktikako talde haietan parte hartu zuen, eta dioenez, egun ere horren beharra dago, ikasleek esaten diotenez. Hasieratik arrakasta handia izan zuten. «Gutxika-gutxika jarduera gehiago antolatzen joan ginen, denak ere euskara eta euskal kultura sustatzea xede hartuta». Hasieran ez zen haurrei begirako proiektua, baina gaur egun haurrentzako jarduerak dira nagusi. «Hau handitzen hasi zen, jendea etortzen hasi baitzen, nahiz eta hau berez Aranbide, Arana, Aranzabizkarra eta Aranzabizkarra auzoetako kontua zen». «Haran» hitza duten toponimoak dituzten auzoak, hain zuzen. Denak «h» gabe, baina, paradoxikoki, «h» batek ordezkatzen ditu auzo horiek elkartearen izenean.

28 IKASTETXETAN

Handitu ahala, Udalarekiko hitzarmena ere aldatuz zihoran, proiektu gero eta handiagoak baitziren, gero eta hedatuagoak, hiri osoa hartu arte. Haurrentzako jarduerak eskolatan zehar banatzen dituzte, 28 ikastetxetan, hain zuzen. «Horrekin bakarrik lan nahikotxo dago», dio Iratxek. Horietan guztietan banatzen dituzte eskuorriak eta haietako ikasle askok izena ematen du Euskharanen eskaintzetan parte hartzeko. Udalarekiko hitzarmena dela-eta, Euskharanek hainbat gizarte etxetako zerbitzuak erabil ditzake eskolak edo tailerrak emateko. Gaur egun San Martin auzo el-



Ezkerrean, Liburu Trukea. Lerroon gainean, alboka eskolak. Endika PORTILLO | FOKU

kartean, Lakua-Arriagako Adinekoentzako Zentro Soziokulturallean, Zabalganako gizarte etxean eta Amaia zentroan. Horiek haurrekin egiten dituzten jarduerak dira, betiere euskaraz. Laguntzeko, ondo pasatzeko...

Astean zehar, berriz, helduentzako programazioa dute. Batetik, aitona-amonentzako eskolak, astelehen eta asteazkenetan; astearte eta ostegunetan, berriz, mintzapraktika egiten dute Amaia zentroan bertan eta San Martineko auzo elkartean. Mintzapraktikarako gutxieneko maila bosgarrena da; izan ere, jendeak hitz egiten jakin behar du, «ondo edo gaizki, baina euskaraz komunikatzeko gai izan behar du», dio Iratxek. Goizetan, eguerdietan eta arratsaldeetan izaten dira saioak, zenbait mailatan banatuta. Oso giro ona

sortzen dela dio Iratxek, jolasak eta eztabaidak izaten dira, betiere denen parte hartzea sustatuz. Guraso Eskolatik joaten dira batzuk, beste batzuk euskaltegietatik, eta irakasleak, Mintzalagun proiektuan bezala, ez du eskolarik ematen, saioa bideratu baizik.

Hilean behin, ostegun arratsalde batean, herri eskolak egiten dituzte. Bertan, Gasteizko arazoak edo auzoarekin zerikusia duten gaiak lantzen dituzte. Eskola horiek gidatzeko Iraleko irakasleak joaten dira sarri, baina bestelako boluntarioak ere joaten dira.

Ostirala euskal folklorearen eguna dutela esan daiteke. Esan bezala, arratsaldeko bostetatik aurrera gazteak biltzen dira Kuadrillategira baina, bestetik, euskal dantza, pandero, txalaparta eta alboka eskolak daude egun horretan.

Ohiko jardueraz gain, hamai-ka jaialdi eta ospakizun ere antolatu izan dituzte. Gabonetan Olentzero Mitologikoa egiten zuten Aranbizkarrako parkean eta Aranako zahar-egoitzan, gaur egun Arriagako parkean egiten jarraitzen dutena. Bestetik, aste kulturalak ia urte osoan zehar antolatzen dituzte. Horrez gain, udan, udaleku itxiak ere eskaintzen dituzte.

Begiraleak Amaia zentroan bertan prestatzen dituzte, Urtxintxa elkartearekin batera. Urte osoko ikastaroa jasotzen dute izena ematen dutenek, eta, ikastaroa amaitzen dutenek, titulazio ofiziala eskuratzen dute.

Iratxek dioenez, aitona-amonen eskolak dinamiko eta dibertigarriak izaten dira. «Oso pozik etortzen dira, eta ikasten dutena erabili egiten dute... Ez da gutxi!»

Begiraleak Amaia zentroan bertan prestatzen dituzte, Urtxintxa elkartearekin batera. Urte osoko ikastaroa da, eta egiten dutenek titulazio ofiziala eskuratzen dute

Finantziazioa laguntza bidez lortzen dute. Izan ere, edozein jarduera egiteko matrikularen prezioa sinbolikoa da. Laguntzak lortzea ez da erraza, baina beharrezkoak dira. Edonola ere, boluntarioen lana eta jendearen parte hartzea dira oinarria. Liburutegiko materiala, esate baterako, donazio bidez lortzen dute, zenbait liburu erosi ere egin izan dituzten arren.

Iratxe elkarteko liberatu bakarra da. Liberatua, koordinatzeko eta beste hainbat kontuz arduratzeko, baita irakasle gisa jarduteko ere. Begirale bat behar bada, gizarte etxe bateko leku bat, diru laguntzak, bilerak eskatzeko, non, noiz... hori guztia koordinatzeko ardura du.

Hasi dira gazteak Kuadrillategira iristen, garaiz iritsi ere, gustura joaten diren seinale. Alboka eskolako gela batean ere hasi dira irakasle bat eta ikasle bat, Xabi eta Ibai, eta guk alde egin baino lehen, hiru garren bat, Miren heldu da.

Hogei urte bete ditu Euskarhanek. Ez alferrik, ordea, hainbat helburu ere beteta.

DUELA HOGEI URTEKO AMETS HURA GAUZATUTA, GASTEIZKO BESTE AUZOETARA ZABALTZEN LAGUNTZEKO PREST

Ondo gogoan du Oihane Perea Euskharaneko presidenteak noiz eta nola sortu zen elkarteak, bera gazte samarra bazen ere. «Auzo elkarteko Euskara Batzordean geunden, zer egin genezakeen aztertzen genbiltzan, Amaia zentroa hutsik geratu zen eta gu ametsetan hasi ginen». Orduan ametsa baino ez zenak gaur egun duen tamaina har zezakeenik pentsatu ere ez zutela egin dio. «Baina oso modu xumean eta poliki-poliki espazioak irabazten joan da, eta, proiektua aurrera ateratzeko txosten handiak egiten baino gehiago, errealtatean gauzatzen, eraikitzen joan den istorioa da. Egia esan, emaitzarekin oso gustura gaude».

Gaztea zen Oihane Euskharan abiatu zutenean, baina ordurako bertsolaritzan trebatuta zegoen. Aspaldikoa da Euskharanek Bertso Eskolarekin izan duen harremana. «Bertsozale Elkarteak eta Bertso Eskola egoitza bila zebiltzan, eta proiektu horretan sartzea oso naturala iruditu zitzaigun. Ez dugu imajinatzen beste leku egokiago bat». Hortaz, ezin egokiago dirudi Oihane Perea Euskharaneko presidentea

izateak ere. Iaz laugarren aldiz jantzi zuen Arabako txapela.

Ez dio bere karguari aparteko garrantzirik ematen. Dioenez, elkarte txikia da eta bera bat gehiago da. «Azkenean nire auzoa da, hor jaio nintzen. Umea nintzenean ez zegoen horrelakorik, eta gaur egungo ume eta gaztetxoek, baita helduek ere, aukera hori izatea zoragarria iruditzen zait». Bat gehiago da, izan ere, eta ez du bere burua nabarmentzen; hala ere, Iratxe Goikoetxeak esan digunez, Oihaneren kargua ez da edergarri edo sinboliko hutsa. Hala onartzen du Oihanek ere, «hemen kargu guztiak lan egiteko dira. Kargua eta karga hartzen ditugu», dio irribarrez. «Gaur egun ez da erraza boluntario lana egingo duen jendea topatzea, eta gu hor gabilta, beti bezala beste jende bat aktibatzen saiatzen. Nik Euskharaneko hainbat kontu eramaten ditut bertako koordinatzailearekin batera. Orain aisialdian umetxoekin eta gaztetxoekin lan egiten duen begirale talde jator bat dago, proiektuan sinisten duena eta gu transmisio lana ondo egiten

saiatzen ari gara, hurrengo belaunaldiek segida eman diezaioten».

Aurrera begira interesgarria izan litekeela dio auzoz auzo horrelako esperientziak gauzatzea. «Baina horretarako konpromisoa behar da, bai euskaltzaleen aldetik bai instituzioen aldetik. Uste dut polita litzatekeela Amaia zentroa bezalako beste batzuk egotea. Baina Euskharanek bakarrik ezin du dena egin eta beste batzuen konpromisoa ere beharko da. Beste inguru batean erronka horri heltzeko gogoia baldin badaukate, Euskarhanek dudarik gabe bere esperientzia guztia, maitasuna, denbora eta laguntza eskainiko die».

Gasteizko Udalaren jokabidearekin kexu da Oihane. «Hitzarmen bat dugu, gutxieneko batzuk ziurtatzen dizkiguna, baina baita hazten uzten ez diguna ere. Mugatuta gaude. Auzoan zerbait polita daukagu oso zentro utzian. Badago zentro hori duintasunez zaintzeko aukera, erabiltzaile dezente dituelako, eta elkarteak ez du gauza handirik eskatu; normalean egin egiten ditu gauzak».

Elkartearen hamabosgarren urteurrenean Amaia zentroan antolatu zuten jaia. Ezkerrean, Oihane Perea, iazko Arabako Bertsolari Txapelketan. EUSKHARAN



Bidean

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Bidean doa. Zabala da, nahiz eta bihurguneak izan, baten bat nahiko itxia. Horietako batean, bidegurutze batean, gorantz hartu du. Zerbait arraroa sumatzen zue- nez, ez du lehenengoan aukeratu malda estu hura, baina azkenean han abiatu da; ea zortea duen.

Iluntasunean ausart doa. Eskerrak ez datorren inor kontrako norabidean, bertzela ez daki zer egingen lukeen. Baserri batzuk igaro ditu, gero behiak, eta gero ezer ez. Orain eskuin, orain zuzen; luze egiten ari zaio, bidea gero eta okerragoa da, baina helmugara hurbiltzen ari dela

dio GPSak. Hiru minutura dagoela mar- katzen du jada, baina mendi punta bate- an dago, zein norabide hartu ez dakiela, dagoeneko ez delako bidea ongi ikusten. Edo berak ez du ikusten. Gero eta urdu- riago dago eta zentzurik gabeko mugi- mendu batzuetan kotxea zulo batean sartu du, lohi putzu batean. Arnasa har- tzeko, motorra itzali du; dena beltz.

Argiak piztu ditu. Alde batetik irreal- a iruditzen zaio egoera: ez da bera inguru ezezagun hartan galdu dena. Baina bai, eta baliabideak behar ditu. Lagun bati deitu eta ez dakiela non dagoen kontatu dio. «Lasai, piztu GPSa berriro eta egin

duzun bide beretik itzuli atzera». «Bel- dur naiz». «Zu lasai, ez zaude bakarrik. Ez moztu telefonoa. Zure bila joango naiz». «Topatuko nauzu?». Gaua bertan pasatzea edo poliziari deitzea pasatu zaio burutik. Argi luzeekin keinuka hasi da eta baserritar bat agertu zaio pija- man, argi batekin. Aterkipean egon dira biak, lokatzetan, mapari begira, solase- an. Nola eskertu dion! Lagunak aurki- tzen badu a ze besarkada eman behar dion! Jaisten badira lurrari emanen dio musu. Iritsi da laguna, eta besarkada, eta ez du lorik egin, bizitzaren metafora izan daitekeen istorioari bueltaka. •

Urduri dago Markel Olano (II)

**Xabier Mikel
Errekondo**

Boterean dauden alderdi politi- koen aginte-jarduna amarru po- litikoa da eta, batez ere, iruzur soziala. Alderdiek beren intere- sen alde arpilatzen dute guztion bizka- rretik. Jokamolde hau lau haizetara ba- rreiatutako kutsadura da, baina etxean pairatzen dugu adibiderik lazgarriena, Gipuzkoan bertan. Markel Olanoren Fo- ru Aldundiaren kudeaketa hainbat Des- potismo Ilustratuaren aplikazio zuzen- ak dira, nahiz gaurkotua “Gipuzkoa Orain” markapean eta komunikabide boteretsuek bernizatuta; finean, “Dena herriagatik baina herririk gabe”. Izan

ere, ze agintarik du arautuko parte har- tze loteslerik herritarrek bere jarduna fiskalizatu ahal dezaten? Ze agintarik arautuko ditu estrategikoak diren proiektuak herritarren onespen esplizi- tua beharrezkoa izan dezaten? Ez izan inozoak, agintariek, bai ala bai, berena egin nahi dute. Horrelakoa da Gipuzkoa- ko Foru Aldundiaren jarduna, herririk gabe... nahi den guztia egiteko; informa- zioa ukatu eta herritarren parte hartze itxurazkoa baino ez.

Horixe leporatu dio GuraSOSe- k Aldundiari herritarrei Zubietako errauste- giaren inguruko komunikazio zientifi-

koa ezkutatu izana salatzean. Nola ez ez- kutatu ikerketa bat herritarrek prentsa eta Aldundia suspenditzen dituztenean 3,5 puntu eskasekin? Eta Usurbil, Ando- ain, Urretxu eta Donostian erraustegia- ren aurkako jarrera nagusitzen denean osasunagatik eta hondakinen kudeaketa ereduagatik? Bada gipuzkoarrak jakitun dira Aldundiaren irainez, eta Aldundia jakitun da komunikazio kanpainen jada ez dutela herritarra erraustegiaren alde jarriko. 2002tik ezkutatutako ikerketa izanik ere hauteskundeetan atarian urdu- ri dago Olano jauna. [https://blogagura- sos.wordpress.com](https://blogagura-sos.wordpress.com). •



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:





> Tradizioa eta berritasuna aurrez aurre



NAIZ+

Zalaparta eragin du 21. Korrikaren kanta eta bideoak. Mad Muaselek, La Furiak eta Fermin Muguruzak elkarlanean egindako abestia orain dela astebete pasatxo aurkeztu zuen AEK-k eta ordutik sare sozialak



sutan dira. Youtube atariko AEKren kanalean abestia zintzilikatu eta berehala hasi ziren kritikak. 250 iruzkin baino gehiago bildu ziren lau egunetan, gehienak aurkako iritzia. “Zer demontre da hau?”, “ze os-

tia da hau?” edo “Korrikaren historiako abestirik txarrena” dela irakurri daiteke iruzkinean besteak beste.

Trap, dancehall, hip hop eta euskal tradizioko doinuak eta dantzak nahasten dira abestian eta horrek askoren harri-dura eta haserrea eragin du. Iruzkina egin dituzten askok umeak dituzte ahotan eta haiekin lantzeko abesti zaila dela diote. Dantzak eta estetika desgokiak iruditu zaizkie beste batzuei, eta askok abestia aldatzea ere galdegin dute.

Youtubetik Twitter eta Facebookera ere egin du salto kalapitak. Bi sare horietan, ordea, askok defendatu dute abestia. Fermin Muguruzak ere sare sozialetan mintzatu da. Euskal Herrian konbentzio eta kontsentsu zaharrak apurtzea zein nekeza izan den adierazi du.

Kantak eragindako kritikei kritika egiten dietenak ere bada. Iritziak iritzi, Korrikaren abestia ahoz aho dabil eta lau egunetan, Youtuben bakarrik, 165.000 ikustaldiak gaudizte lortu du. Eta zuk, zein iritzi duzu?



> Leah Manning

Leah Manning (1886-1977), bi aldiz parlamentari britaniarra izandakoa, duela aste pare bat omendu zuten Cambridgeko unibertsitatean. Omenaldi bero eta berezi horretan, 1937. urtean 3.840 haur Bilbotik ebakuatzeko egindako lana aitortu nahi izan zioten. Ekitaldian azaldu zuten, 1937ko apirilaren 23an gizon bat gerturatu zen Man-



ningek Londresen zuen etxera eta frankistak Bilbo hartzen ari zirela kontatu zion, larrituta. Euskal Herriko milaka haur ahalik azkarren atera behar zituzten gerra giro hartatik. Hurrengo goizean bertan abiatu zen Manning Bilbora, eta, ha-maika bilera eta buruhausteren ondoren, Bilbotik 3.840 haur itsasontziz ateratzea lortu zuen.



> Ama baten ezina

Asteon Facebookeko post batek atentzioa eman dio jende askori. Bertan, duela hiru urte Mikel Gallagak –Javier Gallaga preso politikoaren anaiak– bere amarekin izandako elkarrizketa bat ekarri du berriz lehen lerrora. Tamalez, hiru urte pasatu arren, erabateko gaurkotasuna duen elkarrizketa da.

Asteburuko bisitaren zehaztasunez hizketan ari direla, amak penatuta dagoela esaten dio se-



meari, gorputzaldi txarrarekin. Hasieran, astero joaten zen semea bisitatzen. Gero, hilean behin. Hogei urte kartzelaz kartzela, senarra dagoeneko hila, osasuna makalduta, orain hiruzpalau hilean behin joaten da. Semea besarkatzeko 1.600 kilometro egin behar ditu 24 orduan. Hori da bere ezinaren eta bere penaren muina. Berea eta beste senide askorena, duela hiru urte eta gaur egun, oraindik.

> Baxoa, euskaraz


Euskaraldiaren amaierako ekitaldian, Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleek urteko egun guztietan euskararen alde ekiteko deia egin eta unibertsitatera sartu ahal izateko baxoa proba euskaraz egin ahal izatea galdegin dute.

“Euskalduna bazara hitz egidazu euskaraz”, leloa hizki larritz irakur zitekeen astelehenan Baionako Etxepare lizeoan. Ikasleek ekitaldia egin zuten Euskararen Egunaren karietara eta urteko bertze



egun guztietan ere euskaraz mintzatzeko beharra plazartu zuten.

Testuinguru horretan, baxoa euskaraz egin ahal izateko eskubidea aldarrikatu dute. Ipar Euskal Herriko ikasleek unibertsitatera sartu ahal izateko proba da. Egun, historia, geografia eta matematikako azterketa euskaraz egiteko aukera dute, baina beste azterketak frantsesez egitera behartuta daude. Urteak daramatzate aldarrikapen horrekin.



> Haserrea, nazka eta amorrua

Nafarroako Auzitegi Nagusiak berretsi egin du sanferminetako erasotzaileen aurkako zigorrak. Oraingoan, auzitegiko bost epaileetatik bik boto partikularra eman dute, haien iritziz “sexu erasoa” izan zelako duela bi urteko sanferminetan gertatutakoa. Epaia sare sozialak piztu ditu; nazka, amorrua, haserrea... zabaldu diren iritzietan



sentimendu nagusiak horiek dira. Aurretik, gainera, giroa bero-bero zegoen, sarean badelako webgune bat Manadak egindako ibilbidearen bueltan bisita gidatuak eskatzen dituen. Epaia aurrak aurkako helegitea jarriko dute Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak Espainiako Auzitegi Gorenean, baita biktimak berak ere.



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

Adaren IA

Pasa den hileko artikuluan adimen artifiziala gai hartuta IA siglekin hitz jolas arras behartua egin nuenean, ez nekien Ada Lovelaceren jaiotzaren 200. urteurrenaren atarian geundenik. Are, ez nuen pertsonaia larregi ezagutzen, ez eta adimen artifizialaren teoriza-

zioan egin zuen jatorrizko ekarpenaren berri ere. Zutabe honetara adimen artifizialaren gaia ekarri dudanetan Alan Turingen erreferentzia eman dut beti eta bere testa ezarri makina batek adimena ote duen diskriminatze-ko.

Test horren arabera, makina batek adimen artifiziala duen froga litzateke gizaki batek ezin duenean bereizi makina batekin ala gizaki batekin ari den solasean. Eugene Goostman makinak duela lau urte gainditu zuen proba hori lehendabiziko aldiz, epaile zen gizakiak benetako haurtzat hartu zuenean.

Ada Lovelace, baina, Turing baina mende bat lehenago aritu zen bere senarra zen Charles Babbageren makinan analitikoaren balizko gaitasunen gainean hausnartzen. Batetik, makina analitikoaren bidez Bernouilliren zenbakiak kalkulatzeko algoritmoa idatzi zuen Lovelacek, ordenagailu baten programa gisa har daitekeena, eta, hortaz, historiako lehen programatzaile gisa kokatzen duena. Bestetik, Lovelace ohartu zen makina analitikoa matematikatik haratago aplikatu zitekeela, edozein informazio-mota

tratatzeko, gaur egungo konputagailuen jarduna aurreikusiz, aro digitalaren profeta gisa. Zentzu horretan, makina analitikoak gizakia sorpresaz hartzeko gai izango ez zirela postulatu zuen, hots, makinak ez zirela pentsatzeko gai izango, baizik eta programatuta dagoen hori egiteko gai soilik. Hori dela eta, adimen artifiziala diskriminatze-ko Turingen testaren ordeztu, bada Lovelaceren testa proposatzen duenik. Hau da, adimen artifiziala ez dela gizakia “engainatzeko” gaitasuna, baizik eta sormena erakutsiz gizakia harritzekoa.



Ada Lovelace.

Adimen artifiziala zer ote den definitzeko irizpide horrek giza adimena bera zer ote den biren pentsatzera narama.

Inolako sormenik erakutsi barik, inor harritzeko gai ez bagara, ba ote dugu orduan adimenik? Sorkuntzarako gaitasunak egiten gaitu gizaki Lovelaceren arabera, eta, irizpide horri tiraka, ia esan liteke errealitatea eraldatzeko gaitasunak egiten gaituela gizaki. Niri gutxienez gustatu zait ikuspegi hori, are aurreko hilabeteko artikuluan ukitu nuen gaiari lotuta. Sofia makinaren gizakiaren definiziotik hartu nuen elkar osagarritzen diren adimen artifizialak garela, eta, beraz, elkar osagarritasuna bilatzea dela adimentsua izatea. Ezaugarri horri sormenarena gehitu nahiko nioke gaur, gizakiak harritzeko gaitasunak, jendar-tea eraldatzeko gaitasunak egiten gaituela adimentsu. Sofia eta Adaren IAK bat eginda, lortuko al dugu makina bilakatzeko ari den jendarte hau gainditzetik? •

{ koaderno } Iker Barandiaran

Hemengoa da gure gure egiten duguna

Korrika beraren ideia, izateko eta egiteko modua, garapena, lurraldetasuna, dinamika, lekukotasuna, batzea, aurrera egitea, kultura artekotasuna, adinen arteko elkar-kidetza, batzeko nahia... ikaragarriak dira, mundialak, ia hobetu ezinak. Horregatik pizten du hainbeste jende desberdinen artean ilusioa, jakin-mina eta zirrara, horregatik sortzen du askorengan barruko klika.

Dagoeneko aurkeztu da 2019an Euskal Herria zeharkatuko duen 21. Korrika; eta Fermin Muguruzak idatzi eta Mad Muasel eta La Furiarekin batera interpretatu duen kantua publiko egin da. Ausarta da kantua eta modernoa, oso kalekoa eta urbanoa, kultura arteko talka eta elkarbizitza irudikatu eta gorpuzten duena. Ausarta da zalantzarik gabe, eta horrek askotariko erreakzioak piztu ditu; horien artean badira –erreakzioak– izugarrizko herri-lotsa sorrarazi didatenak. Horiek ikusita oraindik ere badirudi gure herri hone-tan belaunaldiz belaunaldi beldur diogula berriari, kanpotik datorrenari, oraindik probatu ez dugunari, gure purutasuna –zer arrai da hori?– kutsatuko duenari... Nahiago dut jarrera hori bizitzako beste hainbat egoerata ez estrapolatzea, oso-oso kezka-garria iruditzen zait-eta.

Egia da halabeharrez globalizazio garaian murgilduta gaudela erabat, baina gustatu ala ez hori ezin dugu saihestu. Jarraitu dezakegu globalizazio horri bizkarra ematen dioten bestelakoak sortzen, baina, aldi berean, ezin dugu baserrian/elkartean/txokoan/kobazulotan sartuta jarraitu. Euskarak behar du salto egin plazara, garitoetara, lokaletara, dantzalekuetara, lantokietara, auzuneetara, hirietara eta *rave*-etara, eta horretarako aurre egin behar dio datorrenari, hor ere bere lekua eraikiz. Izan ere, herri zaharra gara, antigo-

alekoa eta iraun badugu etorri denari aurre egin diogulako izan da.

Gauza bera gertatu zen bertsolaritzarekin, gure herriko altxor bizi eta bereizgarrienetakoa den horrekin. Hilzorian eta desagertzeaz izan zen egoera berrietara egokitu nahi izan ez zutelako. Eskerrak batzuen ahalegin erraldoi –eta askoren ustetan traizio handiagoari– esker beldur eta traba horiek alboratu eta salbatu zen; horrenbeste, inork pentsatzen ez zuen tonaka gazte batu zituela eta dituela errimak josten eta doinuak amesten.

Hori guztia esanda aitortzen dut ez naizela neu bereziki reggaeton, trap eta gaur egun gure artean hain presentzia indartsua duten estilo hauen zalea eta sei urteko semea kantatu latinoak abesten entzuten dudana.

Euskarak behar du salto egin plazara, garitoetara, lokaletara, dantzalekuetara, lantokietara, auzuneetara, hirietara... eta, horretarako, aurre egin behar dio datorrenari, hor ere bere lekua eraikiz

bakoitzean kostatzen zaidala aurpegitik harridura estaltzea, baina ezin diogu horri bizkarra eman; hemen dago eta gelditzeko etorri da. Hortaz, ikasi dezagun horrekin ere bizitzen eta ahal den heinean gure ere egiten.

Jakina, batzuek bestelako estiloak ere –zaharkituak agian– bultzatzen eta sustatzen jarraituko dugu –gustuko ditugulako, ez hobeak direlako–, baina erabat jakitun izanik etorkizunak eta euskarak elkarrekin egon behar dutela; bestela, kaleko eremu berrietara irteteko gai ez bagara, kale egingo dugu. Bada ezjakintasunak eta aurreiritziek sortutako beldurak albo batera utzi eta klika egiteko ordua! •

Abadea zen Larrabetzun 1968an. Txabi Etxebarrieta-ren heriotzak Euskal Herria astindu zuen, eta abadeek bere omenezko mezak ematea pentsatu zuten. Guardia Zibilak hartu zituen Larrabetzuko kale nagusia eta eliza inguruak. Idatzia prestatu zuen Jesus Naberanek, eta meza atzeratu. Eta berriro debekatu. Hurrengo iganderako deialdia. Aberri Egun bat izan balitz bezala gogoratzen dute herritarrek ordukoa. Mundu bat batu zen herrian Naberanekin elkartzunez eta Txabi Etxebarrieta omentzeko gogoz.

50 urte geroago, herritarrek Jesus Naberan omendu zuten ez da aspaldi Larrabetzun. Herriko abade eta langilea izan zuten gogoan. Preso egondakoa. Euskararen militantea. Xabier Amuriza eta Juan Mari Areitio. Gogor taldeko lagunak. Herriko musikariak. Eta plaza bete jende. Orduko garaiak eta egungoak aletu ditugu Naberanen laguntzarekin. “Sugearen Iraultza” posible dela ikusten du oraindik ere.

Ez da aspaldi omenaldia jaso zenuela Larrabetzun bertan. Nola bizi izan zenuen gonbidapena bera?

Oso pozik, eta emozioz beteta. Jendearen, larrabetzuarren

parte hartzea eskertu nuen. Orain dela 50 urteko gauzak memoriara ekarri ziren.

Aspaldiko kontuak ematen dute 1968ko haiek, baina presente daude jendearen memorian.

Aspaldiko kontuak dira bai, baina denbora zirkularra ere bada. Memorian geratzen diren gauzak berriro birgogoratzen ditugu; eta ez da lehena, oraina edo geroa, dena nahastuta dago. Galdara batean bezala bor-bor jartzen direnean, lehenak, orainak eta geroak bat egiten dute.

Zuk zeuk zelan kontatuko zenizkioke orduko gertaerak



«Kartzelan bertan ikasi genuen euskara batua guk, beharrezko ikusten genuen. Gure artean eta batez ere Xabier Amuriza maisu geneukala ikasi genuen»

gaurko gazte bati, 1968an Euskal Herrian gertatutakoa eta zure kasu konkretuari erreparatuta?

Euskal Herrian horrelako berpizte aldi bat izan zen 68an batez ere eta 60ko hamarkada osoan oro har. Ikastolak sortu ziren, langile borrokak gertatu ziren, gauza asko gertatu ziren garai hartan. 68an eztanda bat izan zen, beste leku askotan bezala Euskal Herrian ere.


Orduan hil zuten Txabi Etxebarrieta. Eta abadeok adostu genuen bere omenezko mezak egingo genituela herri guztietan. Herri askotan egin ziren, eta guardia zibilak agertu ziren azken zokondotaraino. Larrabetzura ere etorri ziren, kalea okupatu zuten eta jendeari egurra eman zioten, eta ez zuten itxi meza hori ematen. Nik hurrengo mezarako deitu nituen herritarrak, eta hurrengorako gero.

Sekulako oihartzuna izan zuen gertaerak, bigarren igandean batez ere. Kale Nagusitik autoak pasatzen ziren, beste herri batzuetatik etorriak. Nazioartean ere oihartzuna izan zuen gure egoera bitxi honek.

Hamarkada horretakoak dira Gogor abade taldearen itxialdia eta protesta ere. Zamorako espetxealdia etorri zen gero.

Abade batzuen mobilizazioa izan zen Gogor, erregimenaren kontra eta justiziaren alde. Eliza pobre eta bertoko bat aldarrikatzen genuen. Gizartea bera zen mugitu zena, eta gu horren guztiaren adar bat izan ginen; gure aukera baliatu genuen.

Langile ere bazinen garai horretan. Asko zineten lan egiten zuten abadeak orduan.



«Krisi egoeretan sortzen da puntu erakargarri bat eta horren inguruan antolatu daitezke iraultza txikiak»

Kontzientzia genuen eta jendartean integratzeko guk ere langile izan behar genuen, eta, horrez gain, nire kasuan, beharrizana ere banuen. Gottaitegiak soldatarik gabe utzi ninduen Etxebarrietaren mezen aferagatik eta, Larra-betzuko lantegi batean, Terrazos Vascos, lan egiteko aukera izan nuen. Ez zen denbora asko izan, gero gose greba egin eta kartzelara sartu gintuztelako.

68a gogoratzen ari garen honetan, ezin aipatu barik utzi Arantzazu eta euskara batuaren sorrera. Zelan bizi zenuen hizkuntzaren batasuna?

Hori 68an izan zen, bai, eta gu 69an kartzelatu gintuzten. Kartzelan bertan ikasi genuen euskara batua guk, beharrezko ikusten genuen. Orduko Arantzazuko liburua sartu ziguten, eta gure artean eta batez ere Xabier Amuriza maisu geneukala ikasi genituen batuaren forma berri guztiak.

Hamar urte geroago hasi nintzen AEKn. Ia-ia sorreratik aritu nintzen. Gau eskoletatik euskaltegietara pasa ginen, eta nazio mailako prozesu interesgarria izan zen. Ni Galdakao eta Bilbo artean bizi izan nintzen garai hartan. Herriz herri aritzen ginen gure metodologia eguneratu eta zabaldu nahian.

AEKn ere alboan izan zenituen Alberto Gabika eta Julen Kaltzada.

Ni baino lehenago hasi ziren eurak. Gabika eta biok tartean ginela Euskal Herri mailako didaktika taldea osatu genuen. Metodologia berritzea eta zabaltzea izan zen batez ere. Oso sasoi emankorrak izan ziren. Jendea euskalduntzeko eta alfabetatzeko ilusioa zegoen, eta

jende kopurua erakarri gura genuen euskarara. Giro ona sortu zen, eta orduan asmatu genuen Korrika ere. Oso garai biziak ziren.

Gerora bizitzako etapa garrantzitsua eskaini diozu itzulpengintzari. Besteak beste Hume eta Herodoto itzuli izan dituzu. Sorkuntzan ere aritu zara.

Itzultzaile denboran euskara asko landu genuen. Klasikoen argitaletxea zegoen, eta bertarako itzulpenak egin genituen. Pentsamendua eta filosofia lantzen zen klasikoetan. Eragina daukate norberarengan ere idazle eta pentsalari handi horiek.

Zuk idatzitako «Sugearen Iraultza» liburuak zelako ekarpen egin zuen zure ustez?

Nik egindako lanen artean gogokoena daukat “Sugearen Iraultza”. Kultur eredu bat proposatu nahi nuen. Kultur eredu hori aurretik Oteizaren pentsamendua ere izan zen hainbat urtetan. Preindoeuroparren kultura aztertu zuen Oteizak eta horra eraman nahi zuen Euskal Herria. Oso aurkikuntza arkeologiko garrantzitsuak gertatu ziren Europa indigenari buruz, eta ikusten zen Europa indigena hori oso ezberdina izan zela gero etorriko zenarekin konparatuta. Gero etorri zen indoeuroparren inbasioa, eta beraiek ezarri zuten gaur garenaren eredu nolabait. Idolo gerlariak, beste ideologia bat, beste bizitzak ikuspegi bat. Euskal Herria baina, hori guztia berandu iritsi zen, duela 2.000 urte inguru eta asko kostata gainera, erresistentzia eta intsumisio handia egon zelako hemen. Hor sartzen da sorginen kontu

guztia, heretikoena eta hori guztia.

Nik aurkikuntza arkeologiko horiek azpimarratu nituen, batez ere Europa ekialdean egindakoak, neolitiko garai oso aberatsa izan zutenak; ama kultura zen nagusi. Ez zen idoloa, baizik gure andere Mariren antzeko mito bat zen. Idoloa barik, ama. Natura irudikatzen zuen andere horrek. Natura bere alderdi on eta txarrekin. Biak integratuta zeuden. Batera.

Apur bat landu nuen gai hori, garaia deskribatu, nola bizi zuten guztia. Ereduaren alde onak hartu gura nituen eta proposamenak egin nituen gaur egun lantzeko.

Etorkizuneko proposamen bezala daukazu zuk?

Proposamen horrek gaurkotasun handia daukala uste dut nik. Naturarekin enpatia aldarrikatzen du, natura muturreko egoerara daramagun garai honetan guztiz beharrezkoa ikusten dut. “Sugearen Iraultzak” emakumeen protagonismoa aldarrikatzen du gizartearen bizitzan, eta horrek ere sekulako gaurkotasuna dauka, eta horren adibide dira feminismoaren gorakada eta indarra bera. Egitura eta instituzio esklerotiko eta inposatzaileen aurrean intsumisioa proposatzen du, eta horren adar bat bezala ikusten dute gaur egun pentsiodunen borroka. Itxaropena hor ikusten dut.

Ematen du ezinezkoa dela sistema honi aurre egitea, baina krisi egoeretan sortzen da puntu erakargarri bat eta horren inguruan antolatu daitezke iraultza txikiak.

Eta pentsamendu eta praktika aldetik non kokatzen duzu orain zure burua?

JESUS NABERAN

IDAZLEA

Gogor apaiz taldea, kartzela, euskalgintza,

herria... Iraultza txikietan sinisten du,

«Sugearen Iraultzaren» zain. Horretaz eta

orain aspaldi ez dela Larrabetzun egin

zioten omenaldiaz hitz egin dugu.


Patxi Gaztelumendi

Praktika aldetik jarraitzen ditut mugimendu hauek guztiak. Pentsamenduari dagokionez, indigenismoa jarraitzen dut. Duela gutxi Kanadako jende batekin egoteko aukera izan nuen, han indigenismoa bultzatzen dutenak; Euskal Herrian zelan bizi dugun hori guztia ezagutzera etorri ziren. Esaten zutenez, Kanadan bertan sekulako indarra hartu du kultura indigenaren defentsak eta balioak. Pentsamendu horretan bizi naiz. Aspaldian hori lantzen ari naiz. “Sugearen Iraultza” idatzi ostean “La vuelta de Sugaar” idatzi nuen gazteleraz, ekarpen batzuk gehituta. Eta gaur egun hori ere agortuta dago.

Amaitzeko, eta hasierako puntura itzultzeko asmoarekin, Larrabetzuko omenaldian aipatu zenuen, 50 urte pasatu arren, Euskal Herria ez dagoela egun orduko egoeraren baino askoz hobe.

Oso kontrolatuta dago gaurko egoera, oso gogor. Pentsamendu aldetik inposatu egin digute eredu indibidualista, kontsumista hutsa. Gure eredu ez zen hori. Etxea, auzoa, herria ziren gure ereduak. Arrakasta indibidualak ez zeukan indarrik.

Politikoki begiratuta, oso eskuinera jota dago gizartea. Era guztietako kontrola ikusten da hor. Ustelkeria areagotu egin da eta errepresioa ere gero eta handiagoa da. Eta horregatik galdera bat bota nuen eskaini zidaten omenaldi ekitaldi horretan: «Zer gertatuko litzateke gaur Etxebarrietaren aldeko meza bat ospatuko bagenu? Guardia Zibilari aurre egingo bagenio?». Bada, errebelioa, intsumisioa izango litzateke. Altsasuko egoera etortzen zait niri gogora...



Marisol RAMIREZ | FOKU

«Oso kontrolatuta dago gaurko egoera, oso gogor. Pentsamendu aldetik inposatu egin digute eredu indibidualista, kontsumista hutsa. Gure eredu ez zen hori, etxea, auzoa, herria baizik»



Duela 50 urteko kontuak gogoan Larrabetzuko plazan

Xabier Amurizaren “4x4 operazioa” nobelan zehatz kontatzen dira 1968an Larrabetzun gertatutakoak. Eta hari horri tiraka, Amurizak berak egin zuen kontalari lana Larrabetzuko omenaldian. Eliza aurrean lehenengo, kalearen erdian gero eta plazan azkenik, 68ko gertaerak gogora ekarri eta kantuan jarduteko beta hartu zuten herritarrek. Kalearen erdian, noski, Txabi Etxebarrietaren omenez Imanol abeslariak ezagun egindako abestia kantatu zuten herriko musikari gazteek. Juan Mari Areitiok hainbat bertso sorta eskaini zituen ordukoak gogoratu eta abadeen matxinada akordura ekarri. Preso dagoen bere alaba eta gainontzeko euskal presoak ere izan zituen gogoan. Eta plazan, duela 50 urteko gazteen lekukotzak entzun ziren Jesus Naberan

omentzeko. Orduko txapelokerrek nolakoak eman zituzten zehatz kontatu zuten artean gazte zirenek. Bada herrian orduan hankan jasotako kolpeak direla-eta oraindik herren dabilen emakume bat. Plazan jesarrita egon zen bera ere. Nabereanek hartu zuen hitza azkenik, Txabi Etxebarrieta, Oteizak Arantzazurako egindako artelana eta kartzelako argazkiekin osatutako oroigarria herritarren eskutik jaso ostean. GAUR8ko elkarrizketan aitortu bezala, orduko garaia gaur egunean ere ematen direla oroitarazi zuen, Altsasuko gazteen kasua gogora ekarrita.

1968an bertan itxialdia egin zuten abadeek Derioko seminarioan. Gogor taldea osatu zuten, eta baita izen bereko diskoa plazaratu ere. Disko horrekin ezaguna egin zen “Ez, ez dut

nahi” abestia kantatu zuten herritarrek plazan, Joseba Etxebarriaren laguntzarekin. Ostean, Xabier Amurizak Frantziako abeslari ezkertiar baten bertsioaren berri eman zien bildutakoei. Colette Magny musikariak 1972an plazaratutako “Camarada curé” kantua entzun, irakurri eta kantatuz bukatu zen omenaldia. Amurizak duela gutxi jakin du kantu horren berri. Abeslari on eta ezkertiar bat deskubritzeaz gain –Colette Magny (1926-1997)–, garaiko borroka hura nazioartean zeinen entzutetsua izan zen gogoeta egiteko parada ere eman zion. Ekitaldian gogorazi zutenez, Larrabetzuko istiluek eta jende oldeak oihartzuna izan zuten bai Radio Paris bezalako irrati batean bai inguruko prentsan ere, nahiz eta frankismo garaia izan eta errepresio latza bizi.

LAZKAOKO ENPARANDEGI, BASERRIKO JAKINTZA JASOTZEKO AHALEGINA

Amagoia Mujika Telleria

Lazkaon Basherri Eguna antolatzen hasi zirenean, Enparandegi baserrikoek berezkoa zuten grinetako bat piztea lortu zuten; galtzen ari diren baserriko ofizioak berreskuratzeko grina. Urtez urte plazara atera dutenarekin, nahi gabe, museo berezi bat osatzen ari dira etxean.

Museo eder bat bezalakoa da Lazkaoko Enparandegi baserria. Bazter guztietan topa daitezke gauzak kontatzen dituzten erremintak: lehenago eguneroko lana egiteko lanabes xumeak, garrantzia berezirik gabeak; orain, galtzen ari den bizimodu baten arrasto preziatuak.

Mari Karmen Garinek hartu gaitu atarian. Juan Jose anaia pasa den otsailean hil zen. Bien artean

Lerroon azpian Mari Karmen Garin, Enparandegi baserrikoa, aurten egin dituen artazorrozko alfonbrak erakusten.
Andoni CANELLADA | FOKU

atundu dute aipatu museo eder hori azken urteotan. Ez dago jendeari irekia, baina aise ireki dio atea GAUR8ri Mari Karmen Garinek, hainbeste mimoz egindako lana erakusteko.

Bisita hasi orduko konturatzen da bisitaria Enparandegin badela mainosoren bat, eskuekin trebea eta artista dena. «Anaia oso mainosoa zen eta niri ere gustatzen zait. Gure aita halakoa zen. Aita beti gogoratzen dut eskuekin lanean; zer ikusi hura egin nahi izaten zuen etxerako. Amona ere horrelakoa omen zen, eskulanetan abila. Izebak kontatzen du panpinak eskuz egiten ziren garaian, gure etxekoek izaten zituztela herriko panpina ederrenak. Amonak edozer gauza hartu eta panpina polit bat egiten omen zien. Gero, panpinak dendan erosten hasi zirenean, 'gureak txarre-nak' esaten zuen izebak txantxetan».

Ganbaran, artazorroz egindako alfonbrak daude ikusgai, txukun-txukun jarriak. Horiexek dira Enparandegin egin dituzten azken eskulanak. Irailean Lazkaon Basherri Eguna izan ohi da, aurten zazpigarrena. Eta horri begira, Enparandegikoek ekarpen etnografiko oso interesgarriak egin izan dituzte urtez urte.

«Lazkaon Basherri Eguna egiten hasi behar zutela-eta, baserritarrak bildu eta asmoa zein zen agertu ziguten. Baserriko produktuak azokara eramateko deia egin ziguten batetik. Eta, bestetik, baserriko lanbideak erakustea ere ondo legokeela aipatu ziguten. Nire anaia segituan prestatu zen. 'Nik zerbait prestatuko dut, ofizio zaharren bat, galdutakoren bat...'».

Esan eta egin. Etxean bazuten artoa txikitze makina, baina baldintza nahiko kaskarrean zegoen. Eta berria egin zuen. «Oso abila zen eskulanetan. Burdinarekin, egurrarekin, harriarekin... askotariko materialarekin lan egiten zuen eta ederki moldatzen zen». Lehendabiziko Basherri Egun hartan, beraz, artoa aletu eta txikitzen zuten bi makina atera zituzten plazara Enparandegikoek. «Plazan aritu ginen artoa aletzen eta txikitzen. Oso ondo atera zen, oso polita, eta dagoeneko hurrengo urterako animatuta bueltatu ginen etxera, zer egin pentsatzen». Basherri Eguna, beraz, erronka txiki bat bihurtu zaie, «zazpi urtean zazpi gauza desberdin eraman ditugu plazara».

Bigarren edizioan, ardien ilea kardatu, haria egin eta harekin galtzerdiak egiten jardun zuten azokan.

Hirugarrenean, «garia egin genuen etxean, hemen egiten ez dena. Garia aletzeko makina berria egin zuen anaiak eta plazara atera genuen. Garia jotzen aritu ginen. Guk baserria berritu genuenean, askotariko erremintak eta makinak agertu ziren, baina asko oso egoera txarrean zeuden, pipiak jota... eta ez zuen merezi gordetzea. Anaiak makina zahar horiek eredu, berriak egiten zituen».



Laugarren Bashherri Egunean, garai bateko lixua eraman zuten plazara, lehen arropa nola garbitzen zen erakusteko. Lixibontzia, kupela handi baten modukoa, lixiba-harria, ura berotzeko sua... dena prestatu eta plazan erakustaldia egin zuten. «Ni beldurrez joan nintzen, ura bertan berotu behar genuen-eta. Plazan haurrak ibiltzen dira gora eta behera eta arriskutsua iruditzen zitzaidan. Baina primeran atera zen eta jendeari asko gustatu zitzaion. Han bertan arropa zintzilikatzeko soka bat jarri genuen, garai bateko arroparekin... Ederra izan zen».

Normalean emakumeek egiten zuten lan hori plazara ateratzearen garrantziaz galdetuta, Mari Karmen Garinek argitu du beren baserrian gizonezkoek asko parte hartzen zutela lixua egiten. «Pisu handia hartzen zuen arropak, beheko solairutik gora igo behar izaten zen... Etxeko gizonek ere parte hartzen zuten, hala gogoratzen dut nik».

ZORROZTEKO MAKINA

Bosgarren urtean, zorrozketak hartu zuten ardatz; segak, aizkorak, labanak eta bestelakoak nola zorrozten diren erakutsi zuten plazan. Horretarako zorrozteko makina bat egin zuen Juan Josek, dotorea. «Anaiak entzuna zuen Igeldoko harria izaten zela zorrozteko onena eta ero moduan ibili zen harri bila. Azkenean, baserrian gordeta zeuzkan batek saldu zion harri bat eta harekin egin zuen aparatu berria».

Seigarren Bashherri Eguna iristerako ja osasunez makal samar zegoen Juan Jose Garin. «Pentsatzen genuen bere azken urtea izango zela», kontatu du arrebak. «Juan Josek baserriko tresna mordoaren miniaturak egin zituen eta haiek atera genituen plazara. Oso polita izan zen».

Eta, aurten, zazpigarren edizioa eta Juan Jose Garin falta izan den lehena, artazorrozko alfonbren eta pagotxaren urtea izan da. «Koinata eta biok aritu gara».

Artazorroz egindako alfonbrak ez dira asmazio berri bat. Mari Karmen Garinek ondo gogoan du haurra zenean horiek izaten zirela etxeko alfonbra ba-



Artazorroa artoa estaltzen duten hostoak dira. Mari Karmen Garin haurra zela, bere aitak egiten zituen artazorrozko alfonbra berezi horiek. Lerroon gainean, artazorroa lantzen.
Andoni CANELLADA | FOKU

«Lazkaon Bashherri Eguna egiten hasi behar zutela-eta, baserritarrak bildu eta asmoa agertu ziguten. Baserriko produktuak azokara eramateko deia egin ziguten. Eta lanbideak erakustea ere ondo legokeela aipatu ziguten»

«Nire anaia segituan prestatu zen. ‘Nik zerbait prestatuko dut, ofizio zaharren bat, galdutakoren bat...’. Anaia oso mainosoak zen eta niri ere gustatzen zait. Gure aita halakoa zen; beti gogoratzen dut eskuekin lanean»

karrak eta akordatzeko da bere aitak nola egiten zituen.

Artazorroa artaburua estaltzen duten hostoak dira. «Udazkenean jasotzen zituen artazorroak eta neguan haiek txirikordatzeko eta josten ari ziren. Horrela, urtero-urtero alfonbra berriak izaten genituen baserrian». Azkenaldian alfonbra horiek nola egiten ziren jakiteko irrika sentitzen zuen Mari Karmenek. «Nire kabuz hasi nintzen probak egiten, baina emaitzak ez ziren nik nahi bezalakotak. Halako batean, Igartubeiti baserri-museora egindako bisita batean, artazorrozko alfonbrak egiten ikasteko ikastaro bat zegoela jakin nuen eta

izena eman nuen». Ikastaro hartan Lola Altolagirre izan zuen irakasle eta hark erakutsi zion Euskal Herrian urtetan erabili izan den teknika zahar bat. «Artazorroak txirikordatu eta josi egiten dira lehenik. Gero, horrekin, forma eta tamaina desberdineko alfonbrak lortu arte. Alfonbrak egiten ez ezik, artazorroekin belarritakoak eta eskumuturrekoak egiten ere erakutsi zigun», kontatu du.

Aitari ikasitakotik eta Lola Altolagirrek erakutsitakotik josi ditu artazorrozko alfonbrak, baserriko ganberan dotore jarrita dituenak. «Gure etxean sukaldeko sarreran jartzen ziren alfonbra horiek. Oinetako zikinak garbitzen



Lerroon gainean, Mari Karmen Garin pagotxaren inguruko informazioa atontzen. Pagotxa landarea berreskuratzea lortu dute eta pozik daude horregatik. Garai batean ganaduarentzat lantzen zen.
Andoni CANELLADA | FOKU

genituen bertan, sukaldea garbixeago egon zedin. Gurean ez zegoen beste alfonbrarik. Nahiko zatar erabiltzen genituen eta, hondatzen zirenean, kendu eta berria jartzen genuen». Orain egin ditudanak ondo gordeta ditu, pena ematen dio hain agudo hondatzea. «Igoal jarriko dut baten bat etxean, baina, egia esan, pena pixka bat ematen dit», aitortu du.

Hari berezi bat eta koltxoiak josteko orratza erabiltzen ditu alfonbrak egiteko. «Oso zaila dago orain koltxoiak josteko orratzak topatzen. Nik bi dauzkat, bat etxekoa, betikoa, eta, bestea, ixtera zihoan mertzeria batean topatu nuen justu-justu. Bakarra zeukan eta huraxe hartu nuen».

PAGOTXA LANDAREA

Artazorrozko alfonbren alboan, pagotxa landarearen loreak, lehortuta dagoeneko (*Trifolium incarnatum*). Pozik dago Garin, pagotxa berreskuratzea lortu dutelako. «Askotan entzun izan dugu 'hori da pagotxa! esaldia. Gauza on bat erraz edo merke lortzen denean esaten da. Pagotxa abereei ematen ziztziaren lore arrosako landare bat da. Ga-

naduak oso estimatua du eta hortik dator esaldi hori».

Garai batean baserri guztietan ereiten omen zen, erraz samar eta oparo etortzen zelako eta ganadua elikatzeko oso egokia zelako. Aspaldian, baina, galdu samarra dago baserri inguruetatik. «Juan Jose anaia aspalditik ari zen haziak lortu eta erein nahian. Azkenean lortu zuen eta joan den udazkenean erein zituen Enparandegiko lurretan. Pagotxak udaberrian bota ohi du lorea. Hauek, zehazki, 2018ko maiatzean jaso ziren», kontatu du Mari Karmenek.

Ordurako, Enparandegiko pagotxek lorea eman zutenerako, Juan Jose Garin hila zen. «Anaia pagotxa erein eta gero

joan zen, nahiz eta ez zituen loretan ikusi. Irailean izaten den Basherri Egunean erakutsi nahi genituen loreak eta, behin jasota, hutsean ontziratu eta izozkailuan gorde genituen. Irailean atera genituen, azokarako, eta primeran mantendu ziren».

Enparandegi baserrian, beste baserri askotan bezala, badute bizimodu bat eta gauzak egiteko modu bat galtzen ari den pena sentipena. «Niri gustatu egiten zait gauza hauek jasotzea eta ezagutzera ematea. Herritar askok ezer ez dakite baserriari buruz. Eta gero eta hiri handiagoak izan, gutxiago dakite. Baserritarrek ere askotan ez diogu garrantzia gehiegi eman etxean ikusitako gauza askori. Neroni gertatzen zait, inguruan pertsonaren bat faltatzen zaidanean, akordatzeko naiz hau edo bestea nola egiten zuen galdetu behar niola, hau edo beste ikasi behar nuela berarekin. Egiten dizuten bitartean ez zara konturatzen pertsona hori joaten den egunean hutsune bat gertatuko dela. Horrekin konturatzen zara ja falta denean, jakintza zuen hori falta denean. Etxekoa joan zaizkidanean pena horrexekin geratu naiz, beren jakintza haiekin joan delako».

Baserriekin berdina gertatuko dela uste du Mari Karmen Garinek. «Lehendabizi dena galduko dugu, gure baserri guztiak eta bertako jakintza osoa. Eta gero jarriko gara lanean galdutakoa berreskuratu nahian. Bitxia da, baina horrelakoxeak gara».

Enparandegin dagoeneko hurrengo urteko Basherri Egunean daukate bu-rua. «Ez daukat garbi zer egingo dudan, baina baditut ideia bat baino gehiago».

«Niri gustatu egiten zait gauza hauek jasotzea eta ezagutzera ematea. Herritar askok ezer ez dakite baserriari buruz. Eta gero eta hiri handiagoak izan, gutxiago dakite. Baserritarrek ere maiz ez diogu garrantzia gehiegi eman»

«Lehendabizi dena galduko dugu, gure baserri guztiak eta bertako jakintza osoa. Eta gero jarriko gara lanean galdutakoa berreskuratu nahian. Bitxia da, baina horrelakoxeak gara»

infraganti

LOLA ALTOLAGIRRE

Ehungintzako artisaua eta artista da. Betidanik izan du haritik aparteko materialekin jakin mina eta material librean bilaketa horretan ari zela iritsi zen arto-hostoekin lan egitera. Intuizioz hasi eta bidean garai batean Euskal Herriko baserrietan artazorrozko alfonbrak egiten zituztela deskubritu zuen, liluratuta.



Lola Altolagirre izatez azpeitiarra da, baina urte asko dira Donostian bizi dela. Irudian, bere etxean, lantzen dituen materialen artean.

Jagoba MANTEROLA | FOKU

Ehungintzako artisaua eta artista da Lola Altolagirre azpeitiarra. «Urte asko kostatu zait nire buroa definitzea baina, bai, horixe naiz». Bastidore baten atzean hasi zen –bordatzeko eta erabiltzen den euskarria–. «Ez dakit nola hasi nintzen, zeinen bitartez. Akaso hariak bilatu ninduen ni. Ez dakit, baina izugarri gustatu zitzaidan. Bastidorean hasi eta ehungailura pasatu nintzen gero». Hogeita hamar urtetik

gora daramatza ofizioan eta askotariko lanak egiten ditu, askotariko materialekin; bere hitzetan, «aukera asko daude, erotzeko adina». Eskuekin egiten dituen altxor horien artean daude artazorroz egindako alfonbrak, duela hamabost bat urte ireki zitzaion bidea.

«Ni berehala hasi nintzen material librean bilatzen, haritik apartekoak. Horretan ari nintzela okurritu zitzaidan arto-hostoak lantzea eta tapiz batzuk egin nituen. Erakusketak batean jarri nituen eta Maria Pilar de Uria azkoitiarrak

ikusi zituen. Teknika horien berri bazuela, bere baserrian arto-hostoak lantzen zirela aipatu zuen eta nirekin harremanetan jarri zen. Hark kontatu zidan arto-hostoarekin egindako alfonbrak ezagutzen zituela, umea zenean bere baserrian egiten zituztela eta sekulako aurkikuntza iruditu zitzaidan. Nik, intuizioz, landu nuen arto-hostoa, Euskal Herriko baserrietan lehen horiek lantzen zirela jakin gabe. Mundu bat deskubritu nuen orduan; deskubritu nuen artazorrozko alfonbrena ofizio bat

izan zela. Pena da zeozer dakitena ez direlako asko akordatzuten. Etxeko ofizioen zerrendan ere ez dago; baina jakindut ofizio bat zela, etxerako ez ezik, enkarguz ere egiten zituztelako artazorrozko alfonbrak. Baina, askotan gertatzen denez, emakumeen lana zenez ez zaio garrantzirik eman eta inor ez da kezkatu jakintza hori jasotzeaz. Niri izugarria iruditzen zait artoaren lanketa artistiko hori».

Artazorrozko alfonbrak kanporako zein barrurako egiten ziren. «Kanpoaldean jartzen

zituzten, abarkak edo botak garbitu eta zikinkeria barrura ez sartzeko. Baina barrurako ere egiten zituzten, apaingarri gisa edo. Nik artazorrozko alfonbrak paretara ere igo ditut, aurrez aurre ikusteko, koadroak bailiran. Hain ederrak dira».

BASERRIAN, DENA BALIAGARRI

Artazorrozko alfonbren ofizioaren atzean, garai bateko jendartearen balioak suma daitezke. Baserrian dena zen baliagarria, ez zen ezer botatzuten. Hartara, artoaren hostoa bera baliatzen zuten etxerako alfonbrak egiteko. «Justu gaur egungo jendartearen kontra. Erabili eta bota joera horren kontra. Hala ere, gaur egun bada jende asko joera horien kontra lanean ari dena. Neroni horretan sartuta nago betebete. Arto-hostoarekin gero eta gauza gehiago egiten ari naiz; tapizak, alfonbrak, eguzki-loreak, belarritakoak, esku-muturrekoak, paparrekoak... Gauza handietatik txikietara pasatu naiz, detaileetara».

Artoa urri-azaro inguruan jasotzen da normalean. Hostoa lehortzen uztea aholkatzen du Altolagirrek. «Nik neuk arto-hostoak Igeldotik, Soraluzetik, Azpeititik, Bidanitik... ekarri izan ditut. Baserriarrek hitz egin eta hostoa jasotzeko eskatzen diet. Egia da artoa gero eta gutxiago ereiten dela, baina, oraingoz, lortzen ditut artazorroak. Orain taloak egiten dituen ekoizle batekin jarri naiz harremanetan. Arto sailak dauzka berak eta tratua egiten dugu».

Artazorrozko alfonbrak, Altolagirreren begietara, arte lan bikainak dira. «Erabili eta zapaltzen diren neurrian, aldatu egiten dira alfonbrak, oi-

narrian duten txirikorda bistratzen joaten delako. Niretzat izugarri polita da erabili ahala nola aldatzen diren ikustea».

Garai batean elkarren ondolan eseri eta eskuekin lan egiteko ohitura bazegoen baserrietan. Arto zuriketan, arto aleketan... aritzen ziren eta, baserri batzuetan, baita artazorrozko alfonbrak egiten ere. «Hizketan aritzeko, kontuak kontatzeko, abestiak transmititzeko eta baita ligatzeko espazio bat ere bazen. Etxekoak ez ezik, alboko baserrietakoak eta gerturatzen ziren», kontatu du Altolagirrek.

Artisau horrentzat sekulako aurkikuntza izan da arta-hos-toekin egiten ziren lanen berri jasotzea. Tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta beste egiten ditu eta pozik dago, «apenas ezagutzen den ofizio baten berri» emateak piztu egiten duelako.

EHUNGINTZA, TERAPIA

Bestelako ehunekin ere lan egiten du eta ikastaro ugari ematen ditu. Altolagirreren ustez, «erabat terapeutikoa» da eskuekin ehunak lantzea. «Ehungintzaren mundua erabateko terapia da. Banuen ikasle bat ehuntzera etorri eta ez dakit zenbat tapiz egin nahi zituen. Bere planak albo batera utzi behar izan zituen, berehala konturatu zelako ehungintzan ez duela buruak agintzen, eskuek baizik. Burua erabat joan egiten da, eskuek eta materialek agintzen dute. Zure buruarekin egoteko modu bat ere bada ez egotea; beste gauza guztiekin erabat ahaztu eta zure eskuei begira egotea. Oso ariketa berezia da. Erlaxatu egiten zara, tentsio asko askatzen duzu, arindu egiten zara egiten ari zaren neurrian...».



Artazorroekin askotariko lanak egiten ditu Altolagirrek; alfonbrekin hasi eta belarritakoekin jarraitu. Jagoba MANTEROLA | FOKU

«Irudipena daukat jende asko nazkatuta dagoela hainbeste kontsumorekin eta aldatzen hasi dela, atzerapausoa ematen. Ehungintza artisaua beti izan da garrantzitsua, baina bere momentua noiz iritsiko zain bezala dago. Gu ere, ehungintzako artisau eta artistak, elkarrekin gauzak egiten ari gara azkenaldian eta horrek indarra ematen digu. Baina, bai, iruditzen zait behetik gora datorrela mundu hau».

Artearen munduan badira gehiago baloratu diren alor-rak eta gutxixeago goratu direnak. Altolagirrek garbi dauka ehungintza bigarren multzoan dagoela, bigarren mailako arte adierazpena baltz bezala hartua izan baita. «Horren atzean historia handia dago. Emakumeak sekulako lana egin du ehungintzaren alorrean eta berdind jarraitzen du, jakintza horrek



«Deskubritu dut artazorrozko alfonbrena ofizio bat izan zela. Pena da zeozer dakitenak ez direlako asko akordatzen. Etxeko ofizioen zerrendan ere ez dago, baina ofizio bat zen»

«Emakumeak ezin zuenez pentsatzen zuena eta sentitzen zuena adierazi, ehundu egiten zuen. Hartara, ehungintzaren bidez transmititzen zuen ahotsez esan ezin zuen hori»

biziraun dezan. Nire ustez ehungintzak esanahi eta egiteko oso berezia izan du historian barna. Emakumeak ezin zuenez pentsatzen zuena eta sentitzen zuena adierazi, ehundu egiten zuen. Hartara, ehungintzaren bidez transmititzen zuen ahotsez esan ezin zuen hori. Horregatik ehungintza oso garrantzitsua da, ez bakarrik janzteko, baita maila artistikoan ere. Emakumeak bere ahotza ehungintzaren bidez adierazi izan du denbora

luzean». Bide horretan, artazorrozko alfonbrena sekulako aurkikuntza izan da Lola Altolagirrentzat. «Lan horietan dagoen intentzio artistikoa eta estetikoa garbi ikusi dut eta horrek liluratu egin nau».

Arima Textil izeneko Facebook orrialdean eta Hiriazoka.com webgunean topa daitezke bai Lola Altolagirreren lanak bai berarekin harremanetan jartzeko bideak. •

Amagoia Mujika Telleria




Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Diagnosticakoak

Haurra nintzela bazegoen hila-
betekari bat «Ipurbeltz»
izenekoa, ira-
kurle batzuk
akaso gogoratuko zarete.
Aurreko astean ahizpak go-
gorarazi zizkidan hura jaso-
tzeko zain egoten ginen une
haiek; aldizkaria argitaratu
behar zen egunean pozik
egoten ginen, iluntzean
etxera iristen ginenean ilu-
sioz, ohera joateko gogo bi-
ziz goitik behera dena ira-
kurtzeko. Une preziatu hura
bizitzeko lehenengoa nor
izango zen zozketa eginez.

“Zain” egotearen kontzep-
tua ez da gaur egungo hau-
rrentzat existitzen. Dena, edo
nahi dutenaren antzeko zer-
bait, eskuragai dute. Hilabete-
kariak badaude, baina hura
iritsi bitartean, pazientzia-eza
asetzeko beste pizgarriren bat
edukitzen dute. Aldizkariaren
adibidetik telebistara salto
eginez, nire alabak ez du ezagutu telebistako programazio
kronologikoaren kontzeptua. Zuzeneko edozein saio eten
dezake, komunera joaten denean edo besterik gabe hama-
bost minutu beranduago ikusi nahi badu puzzlea amaitzen
duenean. Berarentzat ezin dugu zirrara berdinarekin errep-
ikatu ni haurra nintzeneko une hura: ostiralean, gaueko be-
deratzietan zegoen saioa ikusteko familia guztia elkartu.
Gaueko bederatzien garrantziaz ari naiz, ordu zehatz horre-
tan han ez zegoenak telesailaren hasiera galtzen zuen-eta.
Gu bederatzia eta laurdenetan elkartu gaitezke, hasiera
manipulatu dezakegu eta baita jarraitasuna ere; edo norbai-
tek ez duela zerbait entzun? Atzera egin eta berriro ere ikus-
ten jarraitu.

**Gitarra bat eskatu dio Olentzerori; hiru urte ditu eta la-
gun batek esan zidan ea ez ote den azkarregi gitarra bat
oparitzeko.** Eskolan gitarra klaseak dituzte datorren urtean,
zergatik ez itxaron beste urtebete, esan zidan. Gitarra klase-
ak lau urterekin, gehiegizkoa dela pentsatuko duzue akaso.
Baina antzerkia ere badute, eta dantza, eta atzerriko hizkun-



Haurrek gaur egun mila aukera dituzte eskura. GAUR8

tzak, eta igeriketa, tenisa.
Hiriko erritmo azkarra-
ren itzala ote dira Lon-
dresko eskola elitista
hauen balioak?

Lagun batek esan zi-
dan, arrazoi osoz, denari
diagnostiko bat jartzen
zaiola gaur egun. Zain
egoten ez dakiten hau-
rrak dira. Hiperaktiboa
da. Txikiegia. Ez dauka
inteligentzia emoziona-
lik. Estimulatuegiak dau-
de. Edo ez dauka estimu-
lu nahikorik. Lo gutxiegi
egiten dute. Ez dakite jo-
lasten. Pasiboegia da. Ni
haurra nintzenean exis-
titzen ez ziren gaixota-
sun, sintoma eta pertso-
nalitate forma berriak
sortu dira. Eta, horren
inguruan, lanpostu be-
rriak. Terapeutak, psiko-
logoak, idazleak, sasi-
idazleak. Amatasun
perfektuaz idazten dute;
gurasoen rol berrie; ja-

rraitu behar ditugun pautez, arau berriez. Zerbait beharrez-
koa da, ados, baina oreka aspaldian utzi genuen atzean,
neurritz kanpo gailtza diagnostiko artean zoratuta.

**Kontziente naiz hau guztiaz eta hala ere askotan ezin
dut gelditu. Beranduegi da.** Alabari gitarra erosi diot azke-
nean, eta bai, antzerki klasera ere pozik joaten da, eta baita
tenisera ere. Autoerrekonozimendua ez da nahikoa. Nola
geldituko dut inguruan daukadan influentzia sare guztia?
Ezinezkoa da. Alde egin ezean. Urrutira. Oso urrutira. Inter-
net existitzen ez den leku batera.

Eta, zer gertatuko litzateke guztia hainbeste kuestionatu-
ko ez bagenu? Diagnostikorik ez egin eta aurrera jarraitu.
Seriotasun gutxiago hartu dena. Zalantzarik gabe, teknolo-
gia berriak eskolan hain azkar sartzearen, txikitatit Internet
eta sare sozialak izatearen eragina ezin dugu ahaztu, erla-
zioetan, komunikatzerako orduan, orokorrean erreferen-
tzietan. Nahiko arazo badugu hor, beharrezkoak ez diren au-
tolaguntzako liburuetan azaltzen diren arazo berri guztiez
ere gehiegi arduratzen hasteko. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ENRIQUE GUINEA. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA. GUI-III-099_10N

VASCO-NAVARRO TRENBIDEA EGITEKO OBRAK, GASTEIZEN

1882an Lizarratik Gasteiz eta Bergarainoko trenbidea eta Arroitz eta Lerinerako adar bat eraikitzeko plana onartu zen. The Anglo-Vasco-Navarro Railway Company Limited konpainia arduratu zen lanez. Langileei soldatak ez ordaintzeagatik eta konpainiak 1888an Londresen zituen arazoengatik bertan behera utzi zituzten obrak zenbait hilabetez. 1889an Gasteiztik Leintz Gatzagarainoko zatia inauguratu zen. Ingalaterran fabrikatutako lurren-makinak «Euskalerrria» izena zuen. Obrak zenbait aldiz abiatu eta gelditu ondoren, zenbait adar egin eta inauguratzen joan ziren, eta 1929an Gasteiz-Lizarra trenbideko azken zatia bukatu zuten. 1967ko abenduaren 31n itxi zuten trenbidea. Irudian, Gasteiz-Lizarra trenbidea egiteko Gasteizko Herrandarren kaleko lanak ageri dira. Argazkia Enrique Guineak egin zuen 1919an. Atzealdean, geltokia.



GURI ZURI ZURBI

inaki p. jatorra

#AgurInfo7

*Gu eta zure arteko zubia, zaharra eta berriaren arteko igarobidea,
izan dadila lehena bezain emankorra bigarrena*

eskerrik asko!

